

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a / 716. zenbakia

LAPURRETAK/ laz baino gutxiago

Datuen arabera, lapurreta kopurua jaitsi egin da Arrasaten lehen lau hilabeteotan

UBANE MADERA

Ertzaintzak emandako datuen arabera, urtarrilaren 1etik apirilaren 30era arte, bederatzita lapurreta salatu dituzte herrian; iaz, berriz, 23 lapurreta salaketa jaso zituen Ertzaintzak. Atxiloketei dagokienez, zazpi lagun atxilotu dituzte lapurreta egitearren.

Jakinarazi digutenez, ustez delitugile txikiak dira Arrasaten lapurtzen dutenak, ingurukoak. Halaber, Ertzaintzak esan digu ez direla delitugile garrantzitsuak, gaizkile taldeetakoak-eta.

LAPURRETA MOTAK

Lapurreten ezaugarrien gainean, berriz, azaldu digute denetarik izaten dela: "Obra batean materiala lapurtzetik hasi eta partikular bati garraio-txartela lapurtzeraino; lantegi batetik gertu aluminiozko taulak lapurtzetik hasi eta taberna batean lapurtzeraino, edo estanko batean lapurreta egitetik hasi eta enpresa batean lapurtzeraino".

Gaineratu digute, lapurretak txikiak izaten direnez eta ustez delitugile txikiak egindakoak direnez, ezin dela ondorioz atara delitugileen *modus operandi*aren gainean.

ATXILOTU KOPURUA

Era berean, Ertzaintzak adierazi digu dagoeneko zazpi lagun atxilotu dituztela Arrasaten egindako ebasketa edo lapurretetatik: "Horrek ez du esan gura herrian gertatu diren bederatzita lapurretatik zazpiren egileak atxilotu ditugunik, baizik eta pertsona horiek lapurreta edo ebasketa egitegatik atxilotu ditugula, orain egindako lapurretetatik edo lehenago egindakoengatik; izan ere, lapurretak ikertzeko hilabeteak behar izaten ditugu. Era berean, kontuan hartu behar da atxilotuetako batzuek lapurreta berean parte hartu ahal izan dutela".

JOAN DEN ASTEAN, TOTEMEN

Kontuak kontu, eta nahiz eta lapurreta gutxi izan herrian, oraindik ere gertatzen dira. Joan den bariuan, esaterako, Zarugalde kalean dagoen Totem jantzi-dendan lapurtu zuten. Zorionez, lapurrek ez zuten dirurik aurkitu. Hori bai, bitxiak eraman zituzten dendatik eta besteak beste, ateko sarraila puskatu zuten. Gauz egin zuten lapurreta.

Horrez gainera, orain dela bi aste, kale berean dagoen farmazian sartu ziren lapurrak. Kasu horretan, 1.200 euro pasatxo eraman zituzten. Arratsaldeko 14:00ak inguruan lapurtu zuten.



Segurtasuneko atea du Totem dendak; hala ere, lapurrek bazekiten zelan apurtu eta bulegoraino sartu ziren.

Azoka txikira joateko oinezkoendako kantoiak laster zabalduko dituzte

U.M.

Maalako Errebala Mondragones kalearekin lotzen duten bi kantoiak laster zabalduko dituztela jakinarazi digute udaletik. Asmoa da lehenbailehen zabaltea bidea oinezkoendako, azoka txikira joateko.

Oraindik hilabete pasatxo falta da Azoka, Okendo eta Mondragones kaleetako lanak bukatzeko, baina laster zabalduko dute oinezkoendako pasabidea, hango kan-

toietatik. Mondragones kalea zolatzen dabilta orain, eta Azoka kalea zolatzea falta zaie. Edozelan ere, segurtasun neurriek utzi bezain laster zabalduko dituzte bi kantoiak.

OKENDO KALEA FALTA

Izan ere, bide onetik doaz lanak. Udaleko aurreikuspenen arabera, San Juanetarako bukatuta izango dituzte lanak handienak.

Lehen esandakoez gainera, Okendo kaleari dagozkion lanak egitea falta zaie orain. Horixe

da lanen azkeneko zatia, hain justu ere.

ORDENAMENDU EGOKIAGOA

Behin hori eginda, Azoka, Okendo eta Mondragones kaleek beste itxura bat erakutsiko dute; besteak beste, lehen baino antolaketa hobea izango dute. Esaterako, automobilen joan-etorria dezent mugatuko dute oraingo egoerarekin konparatuz gero. Era berean, alde zaharrak berak ere beste itxura bat hartuko du, lehen baino zabalagoa.



Zoladura lanez gainera, Okendo kaleari dagozkion lanak egitea falta zaie.

ELKARRIZKETA

ISABEL OTXOA/ LAN HARREMANEN ESKOLAKO IRAKASLEA

“Halako langile bat kontratatzeko, ona izaten da haren lekuan jartzea”

Lan Harremanen Eskolako irakasle Isabel Otxoa Arrasaten izan zen eguaztenean, etxean lan egiten dutenen gainean hitzaldia ematen, Emakume Txokoaren eskutik; besteak beste, etxeko langileen elkarteko aholkulari da bera, 1990etik hona. Halako langileen egoeraren gainean galdetu diogu.

Langile askok jarduten dute gaur egun etxeetan?

Ez dugu hemengo datu zehatzik, oso murgilduta dagoen ekonomian diharduen sektorea da eta. Adibide bat: Kataluniako hiru udal-letan egindako ikerketa baten arabera, etxebizitzaren %27 ingurutan zegoen halako langile bat, hainbat lanaldi motarekin. Langile etorkinen erregularizazioaren ostean, Araban 1.405 daude Gizarte Segurantzaren izena emanda, 3.985 Gipuzkoan, 5.771 Bizkaian eta 3.260 Nafarroan, baina askoz gehiago daudelakoan gaude.

Zein da langile horien profila?

Emakumeak dira ia guztiak, gizonezko batzuk ere badaude (gutxi), batez ere etorkinen artean. Adinari dagokionez, denetik dago. Adineko etxeko langileak (lan hori egiten erretiratuko direnak) oraingoz hemengoak dira. Denetik egiten dute, azkeneko urteetan asko zaintze-lanetan aritzen dira, eta haien artean etorkin asko 24 orduz.

Eta haien egoera laborala?

Gure elkarte Bizkaian dagoenez, Bizkaiko datuak emango dizkizuet, 2003-2004koak:

Kanpoko langileak: %46 lanaldi osoan zegoen eta gainerakoak lanaldi laburrean. Lanaldi osoan zeudenen artean, %77ak asteen 40 orduetik gorako jarduna zuten. Eta haietatik %15ak asteen 60 ordu baino gehiagoko lanaldiak izan zituzten, dependentzia zuten pertsonak zaintzen.

Soldatari dagokionez, asteen 30 eta 39 ordu egiten zutenen artean, %46ak ez zuten kobratzen lan egindako orduetako gutxieneko soldata. %54ak, berriz, bai.

Lanaldi osoa egiten zutenen artean, berriz, %23ak asteen 40 orduz lan egiten zuten; haietatik %42ak ez zuten kobratu gutxieneko soldata. Asteen 40 ordu baino gehiago egin zutenen artean, %83ak ez zuten kobratu lan orduetako gutxieneko soldata. Eta, asteen 60 ordu baino gehiago lan egin zutenen artean, inork ez zuten kobratzen zegoena.

Eta Gizarte Segurantzaren, alta emanda egoten dira?

Asteen 20 ordu edo gehiago lan egiten dutenen artean %63,08a ez zegoen alta emanda. Eta 24 orduz lan egiten dutenen artean, %46a alta eman barik dago.



LEIRE LARDIZABAL

“Soldatei dagokienez, orokorrean, gehiago poltsikoratzen dute hemengoek etorkinek baino”

Baldintzak desberdinak dira langilea hemengoak denean edo kanpotik etortitakoa denean?

Etorkinek askoz maizago jarduten dute 24 orduz lanean; horrez gainera, oro har, lanaldi luzeagoak egiten dituzte, bai lan egiten duten etxe barruan lo egiten dutenek baita lanera kanpotik joaten direnek ere. Soldatei dagokienez, denetik dago, baina orokorrean, gehiago poltsikoratzen dute hemengoek hilabete bukaeran, ordu asko lan eginda, noski.

Etxe batean lanean hasten denak zer hartu behar du kontuan beste ezer baino gehiago?

Idatzizko kontratua eskatu behar du, lanaldia zehaztuta, izan ere, askotan lanaldi hori luzatu egiten da gerora. Kobratzen duenaren idatzizko frogaren bat ere eskatu behar du (taloi bateko balio du, banketxe bateko sarrerak, edo nominak). Horrez gainera, Gizarte Segurantzaren eskatu behar du (etorkizuneko prestazioak izate-

“Etxeko langileak idatzizko kontratua eskatu behar du eta han zehaztu egin beharreko lanaldia”

ko), eta batez ere kontuan hartu behar du laneko harremanean sortzen diren arazoei (esaterako, Gizarte Segurantzako alta falta, hasieran hitzartutakoa baino ordu gehiago eskatzea...) garaiz aurre egin behar zaiela.

Halako langile bat kontratatzen duenak zer eska diezaiotke eta zer eman beharko lioke?

Eskatu, edonori eskatu ahal zaiona: lana ondo betetzea. Ematearen kasuan, esaterako, ona izaten da haren lekuan jartzea: soldataz gainera, bestelakoetan, esaterako, langilearen ordutegiak aldatzean, aparteko orduak egitea inposatzean, oporrak egun bate-tik bestera ematean...

Zuekin harremanetan jartzeko zer egin behar da?

Bilbon, Basaurin eta Barakaldon gaude, aholkularitza juridikoa emateko. Norbaitek gurekin kontaktuan jarri nahi badu, deitza dauka astelehenetan 18:00etatik 20:00etara. 944 15 54 83.

Euskararen kale erabilera bikoiztu egin da 1998tik hona

U.M.

Arrasateko kaleetan izaten diren hiru elkarrizketetatik bat euskaraz izaten da, edo bestela esanda, euskararen kale erabilera %32koa da. Halaxe dio Udaleko Euskara Sailak egindako ikerketak.

Ikerketa horrek zera dio: antzeko hizkuntza-egoera duten hainbat herritakoa baino erabilera handiagoa dago Arrasaten. Are gehiago, oso baikorra da kale erabilerak 1988-2005 bitartean izan duen bilakaera. Izan ere, 1998tik hona bikoiztu baino gehiago egin da; hain justu ere, 18 puntu hazi da, %14tik %32ra pasatu da. Igoera hori nabarmenagoa da gazteen artean, 1986-2001 aldian %37tik %89raino igo da euskaldun kopurua; helduen kasuan, berriz, haien erabilera

ere asko hazi zen 1988-1990 artean; izan ere, helduen erabilera adinekoren erabileraren erdia zen; gaur egun, berriz, antzekoak dira bi taldeen erabilera mailak.

Bestalde, ikerketak argi utzi du 14 urte bitarteko umeak direla kalean euskaraz gehien egiten dutenak: 2001-2005 bitartean, %47ak.

ERDIALDEAN, GEHIAGO

Auzoka begiratuta, berriz, datuek erakusten dute Arrasateko erdialdean eta Uribarri auzoan egiten dela gehien euskaraz. Hain justu ere, 2001-2005 bitartean bi auzo horietan egindako elkarrizketen %40 inguru euskaraz ziren. Musakolan, berriz, erabilerak behera egin zuen eta San Andres eta Santa Marina auzoetan erabilera oso txikia da, %20ra ere ez da iristen.

Hemezortzi urte daramatza Arrasateko Udalak euskararen kale erabilera neurtzen

14 urte bitarteko umeak dira kalean euskara gehien egiten dutenak: %47ak, 2001-2005ean

Izoztuta dauden udal artxiboko dokumentuak berreskuratzeko

U.M.

Enpresa espezializatu bat kontratatu gura du Udalak artxiboko dokumentazioa berreskuratzeko. 2004ko abuztuan izandako uholdeek eragin zituzten kalteak.

Udal artxiboan izan ziren uholde horien ostean kaltetu ziren liburu eta dokumentazio gehienak uholdea gertatu eta hurrengo asteetan berreskuratu ziren, baina bete batzuk, izoztu egin zituzten, haien berreskuratzea ziurtatzeko.

Orain, izoztuta dauden liburu eta dokumentu horiek eta lehortutako dokumentazioaren

artean behar den egoeran ez dagoen dokumentazioa berreskuratzeko, 300.000 euroko partida aurreikusitako du Udalak. Hain justu ere, 2005ean 75.000 euro emango ditu; 2006an, 150.000 eta 2007an, gainerakoa.

ADMINISTRATIBOA ETA HISTORIKOA

Horrez gainera, Udaletik jakinarazi digute aurrera begira banatu egingo dituztela artxibo administratiboa eta artxibo historikoa. Halaber, esan digute artxibo administratiboa udal-letxean gordetzeko asmoa dutela eta historikoa non gorde aztertzen dabilzala, baina akaso Monttarron jauregia izan daitekeela leku egokia.



Milioi bat paper kaltetu ziren uholdeetan; Uarkapen izan zituzten, sikatzen.



Anbulatorioaren fatxadako eta beheko solairuko lanak bukatzea besterik ez zaie falta guztia egiteko.

OBRAK/ Anbulatorioa berritzeko lanak bukatzeaz

Ekainean, anbulatorioa obra barik eta berri-berri

UBANE MADERA

Ekaineko lehen hamabostaldirako bukatuko dituzte anbulatorioko lanak. Hala adierazi digu anbulatorioko zuzendari Edurne Marañoek. Halaber, jakinarazi digu beheko solairua eta eraikinaren fatxada bukatzea falta zaiela. Beste bi solairuak berrituta daude.

Joan den asteaz geroztik, anbulatorioak sarrera berria du, atzeko aldetik. Kontua da beheko solairua berritzeko lanak egiten dabilzala orain eta aurreko atetik ezin dela sartu. Edurne Marañoek adierazi digunez, beheko solairuko lanok bukatu, sarrera itxuratu, altzariak-eta ipini eta eraikinaren aurrealdea bukatzea besterik ez zaie falta anbulatorioko berrikuntza-lanak bukatzeko. Lehen esandako moduan,

ekainerako bukatuko dituztela uste dute.

ZERBITZUEN BANAKETA

Behin berrikuntza lan guztiak egin ostean, beheko solairuan eta lehenengoan lehen mailako asistentzia emango dute (gaur egun lehenengo eta bigarren solairuan daude zerbitzu horiek, behin-behinean).

Bigarren solairuan, berriz, zenbait espezialista izango dira: emagina, otorrinolaringologoa,

ginekologoa, oftalmologoa... Gaur egun Eskualdeko Ospitalean ematen dituzte zerbitzu horiek, behin-behinean.

Eta gorengo solairuan, bestelako espezialistak izango dira: traumatologia, kirurgia, kardiologia, anestesia eta erreumatologia, besteak beste. Horrez gainera, berritasun garrantzitsuenetako bat da beste igogailu bat ipini dutela eraikinean.

EPEAK ONDO BETETZEN

Orain dela urtebete inguru hasi ziren anbulatorioko lanak egiten. Eraikuntza sektoreko grebak harrapatu zituen eta horren ondorioz, denbora batez, geratuta izan ziren lanok. Edozelan ere, epeak oso ondo betetzen dabilzala esan digu Edurne Marañoek: "Solairu bakoitzerako hiruzpalau hilabeteko epea zehaztu zuten eta hala dabilzala egiten".

Berritasun garrantzitsuenetako bat da beste igogailu bat ipini dutela eraikinean

3.000 bat euro batu dituzte ATECEkoek Zigorrolako jaietan

U.M.

Pozik daude ATECEkoak San Isidro jaietan batutako diru kopuruarekin: 3.000 bat euro. ATECEBITHOIrako sarrerak saldu zituzten eta zozketak egin. Horrez gainera, diru laguntza ere izan dute.

ATECE elkarteko psikologo Kar-mele Barrutiak Arrasate Irratiari adierazi dio soldatak-eta ordaintzen laguntzeko izango dela diru hori: "Seguru asko gorde egingo da, soldatetarako-eta diru finkorik ez dugunez, hilabete bukaerarako beste ekarpen txiki bat izateko".

Edozelan ere, horiek baino kezka handiagoak ere badituzte garun kaltea duten gaixoei laguntzen dien elkartean; hain zuzen ere, kezka nagusia da gaur egun ezin dutela eurek nahiko luketen moduan

lan egin eta nahiko luketen moduko zerbitzua eman: "Diru iturri sendorik ez dugunez, bi langile lanaldi osoan eta bat lanaldi erdian ditugu kontratatua eta zerbitzu osoa emateko, zazpi lagun behar-ko genituzke".

ZOKZKETAREN IRABAZLEA

Bestalde, lehen esandako moduan, hainbat zozketa egin zituen ATECEk Zigorrolako kiroldagian. Hantxe bertan banatu zituzten sari gehienak, baina elkartetik azaldu dutenez, marrazki lehiaketako bi lagun saria jaso barik geratu ziren. Hain zuzen ere, bigarren saria bost urteko Ekiñe Apellaniz neskatilatxoak irabazi du, eta hirugarrena, 11 urteko June Otxoak. Hala, elkartetik pasatzeko deia egin die ATECEk, edo bestela honako telefonora deitzeko: 943 79 28 07.



Jende dezentek parte hartu zuen ATECEk antolatutako ekitaldian.

LABUR

Datorren astean alkatea GOITBn izango dela-eta, hari galderak egiteko aukera dago

Datorren martitzenean, hilak 24, Inazio Lakuntza alkatea izango da GOITBko Debarri saiko gonbidatua. Halakoetan ohienez, interesa duen edozeinek kezka eta galderak egin diezazkioke alkateari. Bi bide izango ditu horretarako. Batetik, Internet erabiliz: www.goiena.net helbidean, eztabaidei eskainitako tartean aurkez ditzake galderak. Bestetik, Debarri saiora bertara dei dezake eta galdera zuzenean egin diezazkioke alkateari. Debarri saioa 21:00etan emititzen da, zuzenean. Ikusteko astirik izan ezean, 22:30ean errepikatu egingo dute.

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711767

Gorka ilepaindegia peluqueria
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78
ARRASATE
Bainuetxe 10 - 943 79 70 25
ARETXABALETA

PUB HAIZEA
arrasate

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 20
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26

ZAPATUA, 21
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39

DOMEKA, 22
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

ASTELEHENA, 23
Español. Araba etor. 14 943 79 18 65

MARTITZENA, 24
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09

EGUAZTENA, 25
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30

EGUENA, 26
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15

EGUBAKOITZA, 27
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenerik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

Arrasate
Astelehenerik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate. 943 79 71 99

SUHILTZAILEAK
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 meza nagusia (euskaraz)	Domeka 10:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
12:30 (elebiduna)	
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:00 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
	Santa Marinako eliza
	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Domeka 11:00 (elebiduna)
Zapatua 19:00 (elebiduna)	
Domeka 11:30 (elebiduna)	

OHARRAK

TXATXILIPURDIKO UDALEKUAK
Astelehenean, hilaren 23an, bukatuko da udalekueetan izena emateko epea.

ZAPATUAN, LARUNBLAI
Bihar, zapatua, Txatxilipurdik Larunblai ekimena egingo du Seber Altuben. 11:30etik 13:30era, aurpegi margotzea eta eskulanak egingo dituzte.

MAGIA, SANTA MARINAN
Martitzenean, hilaren 24an, Xixka taldeak magia saioa egingo du Santa Marinako liburutegian, 17:30ean.

1950EKO KINTOAK
Ekainaren 4an, 1950eko kintoek urteroko hitzordua egingo dute. Interesatuak Jose Oleari deitu beharko diote, lehenbailehen (943 79 11 15).

ARTZAMENDIRI OMENALDIA
Juanito Artzamendiren omenaldirako azkeneko entseguak egingo dituzte Musika Eskolan: gaur, egubakoitza, 21:30ean; bihar, zapatua, 10:00etan; eguenean, 21:00etan; eta egubakoitzean, 21:30ean.

KONTZERTUAK
Gaur, Gure Leku tabernan, El mentón de Forgaty. Bihar, 3.60 aretoan, Dolce Vita, Lagash eta Elvereth taldeen kontzertua.

AEDrenAGENDA

GAUR, EGUBAKOITZA, ANTZEZLANA, AMAIAN
Gaur, egubakoitza, Antzerkiola Imaginarioak *Fitola balba karpuki tui* antzezlana egingo du 22:30ean. AED eta Kultur Errotaren eskutik.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Musakola Arrasatetik banatzeko manifestazioa

Orain dela hamar urtekoa da honako argazki hau. Hala ere, urte gehiagotan antolatu zuten Musakola Arrasaterengandik independizatzeko manifestazioa. Astoa aurrean zutela, berezko izaera aldarrikatzen zuten San Isidro jaietan. Aspaldian ez dute halakorik egin.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Sermolari"



JON IRAEGI

— Aste santuan sermolarixak etortzen zien urtero.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Bergarako Aitor Gonzalez aktoreak 'Goenkale' telesailaren gainekoak kontatu dizkigu

Goenkale telesailean ezagun egin den arren, antzerkian egin ditu aktore moduan lehen pausoak Gorka Gonzalez bergararrak. 23 urte ditu eta Bilbon bizi da gaur egun, baina bere jaioterrian aurkitu dugu, jaietako biharamuna pasatzen. Astean, 107.7ko autobusean izan da. *Mingaina dantzari* geltokian elkartu ginen berarekin, eta bere lanaz, jaiez edota bere zaletasunen gainean galdetu diogu. *Asteko gainbegiratu*-n berreskuratuko dugu aipatutako solasaldia.

IDAZLEA ETA IKERTZAILEA

Asteburuko hitzorduan, baina, beste izen ezagun batzuk ere aurkituko dituzue: Oñatin jaio baina txikitatik Arrasaten bizi izan den Gaizka Barandiaran ikerlari eta idazlea esate baterako. 89 urte ditu, ondo baino hobeto aprobetxatutakoak egindako lan zerrenda kontuan hartzen badugu. Merezitako omenaldia jaso zuen joan den domekan Txistularien Elkartearen eskutik, eta oraindik ere lanerako gogo itzela duela erakutsi digu.

HAUGIROA!

MINIMOA Astelehena, 16	9 °C
MAXIMOA Domeka, 15	24 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	84,3 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 11	23 °C 10 °C 8,5 l/m ²
Eguena, 12	20 °C 13 °C 13,7 l/m ²
Egubakoitza, 13	22 °C 14 °C 3,1 l/m ²
Zapatua, 14	21 °C 11 °C — l/m ²
Domeka, 15	24 °C 10 °C — l/m ²
Astelehena, 16	20 °C 9 °C 54,8 l/m ²
Martitzena, 17	14 °C 11 °C 6,5 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko gainbegiratu**: Gaizka Barandiaran; Aitor Gonzalez; Pello Zabala, isobara mapen gainean; Jose Ramon Elorza, Elkarriko kidea.

DOMEKA
10:00 **Asteko gainbegiratu**.

ASTELEHENA
10:00 **Elkarrizketa bilduma**.

MARTITZENETIK EGUBAKOITZERA
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldien iragarpena (Joxe Landal).
Elkarrizketak.
Zozketak, e.a...

11:05 **Musika**

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

12:20 **Zorion agurren tarte.**
Parte hartzeko: 943 71 17 31.

12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak

13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**

14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**


KALEINKESTA/ Gustetan jatzu Erdi Aroko azokie? Zeozer kanbixauko zeuke?



ANER KORTABARRÍA
Langillie



RIDOUAN EL YAAGOUBI
Langillie



PELLO CABALLERO
Langillie



BEGOÑA ETXEBARRIA
Langillie



AMAIA GARCIA
Langillie



IZASKUN EZPELETA
Langillie

Juen zan urtekue gustau jaten, gustora ibilli nitzen gauzak ikusten. Azoka horrekin asteburuero giro apur bat egoten da alde zaharrien. Niretako azokie ez jako ezer falta.

Juen zan urtekue politte pentsau jaten, eta gaiñera herrixei bizittasune emun eutzen. Aintxiñako gauzek ikustie gustetan jat: artisauek... herrixai girue emuten dutzo.

Holako gauzak ondo dauzela pentsetan dot, herrixandako eta kulturindako. Ezer egotie baiño hobe da gauzak egittie. Neuri gehixen artisauek gustetan jat, baiñe bestelakuek be bai.

Azokie ondo euen, gustau jaten. Gauza asko euzen, baiñe neuri gehixenbat reposterixie gustau jaten, baitte bitxixek be. Sasoi bateko dantzak egin biherko leukie.

Herrixen premiña haundi-xek dauz. Jai herrikoiek desagerketan dabitz Udaltxian kulpaz, subenziño barik... Eta herri honekin zerikusirik ez daukon enpresa bat aberasketan dabil.

Juen zan urtien gustau jaten egon zana eta Mondraguerako gauza politte dala uste dot. Pentsetan dot ondo organizaute dauela, eta dauzen gauzekin nahiko konpletue dala.

USTEAKUSTE

Globalizazioa

Heldu da bigarren aldiz Arrasatera Erdi Aroko Azoka. Joan den urtean lehenengo aldiz antolatu zuten eta alde zaharra jendez, kolorez, usainez eta ezohiko gauzez bete zuten. Giro berezia eman zieten herriko kaleei.

Halako azoka baten ezaugarri nagusia izan daiteke beste garai baten zaudela pentsaraztea, eta neurri batean hori lotu zuten. Baina, horretaz gain, beste edozein herrialdetan egindako azokaren traza bera zuen, saltzaile eta bestelako langileak kanpo-koak ziren, eta saltokietan eta egin zituzten ekintzetan ez zegoen euskararen arrastorik. Hortaz, beste garai batean geundelako itxura emateaz gain, Arrasatetik kanpo geundela ere pentsa genezakeen. Hemendik urrun.

Herrian giroa bultzatzeko ekimenak behar dira, eta ondo dago halako ekintzak egitea, baina hobea litzateke ekimen globalizatuak bere horretan ekarri beharrean, ekimen horiei herriaren eta herritarren nortasuna ematea.

Bihar hasiko den bigarren azokarako hainbat aldaketa iragarri dituzte. Besteak beste, euskararen presentzia bermatu gura dute eta herriko talde batzuek esku hartuko dute. Ea Arrasateren nortasuna galdu barik, gozitzen dugun!

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK LOREAK LANDATU DITUZTE Herritar batzuek esan digute oso pozik daudela azken asteotan parke, berdegune eta biribilguneetan loreak landatu dituztelako. "Hainbeste zementu, auto eta bestelakoen artean, eskertzen da biziduna den zerbait egotea. Are gehiago, loreek kolorea ematen diote herriari". Txalo hau jasotzearekin bat, gogoratu dugu orain dela hilabete batzuk herritar batek ekarri zigun kexa. Honako hau salatu zuen: "Ez dakit zein arrazoiengatik neguan ez duten lorarik landatzen. Lehen egiten zuten, eta orain ez".

ASTEKODATUA

250

**LAGUN, JUANITO
ARTZAMENDI GOGORATZEKO**

Dagoeneko iragarri dute Juanito Artzamendiren omenaldian egingo dutena. Datorren asteburu izango da, hilaren 28an eta 29an, hain zuzen. Guztira hiru kontzertu egingo dituzte, eta 250 lagunek esku hartuko dute emenaldi horietan.

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



Etxebizitza txikiak gazteendako

Espainiako gobernu sozialistak, etxebizitzaren arazoa arintzeko, gazteei begira 30 eta 40 metro koadro baino gutxiagoko etxeak eraikitzea proposatu zuen. Ekimen horrek eztabaida handia sortu du eta erreakzioak ezberdinak izan dira. Bi etxe dauzkatenek ekimena barregarria dela diote. Egungo etxebizitzaren prezioa ordaintzeko ahalmena daukaten sektoreek ekimena zentzugabea dela diote: Sektore horietako progreek laurogei metroko etxebizitza aldarrikatu dute. Etxebizitza erosteko arazoa daukaten taldearen barnean jarrerak zatitua daude. Etxebizitzaren merkaturtik kanpo dagoen jendeak eta etxetatik ezin irten dauden gazteen artean, gehienak ekimenaren alde daude. Ni ere alde nago.

Jakina, etxetik irteteko eta denboraldi baterako soilik baliagarria dela. Jakina, horrelako ekimenekin ez dugula etxebizitzaren arazo estruktura-

la konpontzen. Alokatzeko etxebizitza, publikoa eta merkea dela benetako irtenbidea. Baina gizarteko alderdi zabal batek zailtasun handiak ditu etxebizitza bat eskuratzeko, bai erosteko eta bai alokatzeko prezioak oso garestiak direlako.

Hurbilago, gure Arrasate herrian, arazoak metatu eta larritu egin dira. Ekonomia, teknologia, euskara eta herri komunikabideen alorretan aitzindari garen gure eskualde eta herrian, oso-oso atzerakoiak gara etxebizitza, gai ekologiko eta bestelako giza

arazoetan. Eta azken urteetan planifikatutako hainbeste lurzoru industrialek dakarten dinamikak gure ekosistemarekiko behin-betiko haustura ekar dezake. Egoera horrek orain arte gauzatu ez diren sormen eta esperientzia pilotuak eskatzen ditu. Ereku konpartitua eta eremu propioak dituen herriko gazteen egoitza zabal bat, alokairuan edota prezio merkean, izan daiteke, hemen eta orain, irtenbide ederra.

"Alor batzuetan aitzindari garen eskualdean oso-oso atzerakoiak gara etxebizitza, gai ekologiko eta giza arazoetan"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Karmele Etxabe

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

MENDIA/ Datorren astelehenetik zapatura arte egingo du Besaidek Mendi Astea

Mendi Astearen barruan, mendiko seiluen gaineko erakusketa bitxia Monterronen

XABIER URTZELAI

Badator Besaideren Mendi Astea. Astelehenetik zapatura arte egingo dute, orain arteko formatua aldatu barik, eta asteen zeharreko diapositiba emanaldi erakargarriekin. Gainera, berritasun bat ere egongo da: seiluen erakusketa bat, Monterronen hura ere.

Jaime Alonso durangarrak denbora asko darama seiluak biltzen. Ez da, baina, bilduma soila, seilu horiek guztiek mendiarekin harreman zuzena daukatelako. Hala, astelehenetik egubakoitzera, besteak beste, Everesteko irudiak, erreskateetako irudiak edo beste edozein menditako irudiz osatutako seilu bilduma ikusi ahal izango duzue Monterronen egongo den erakusketan.

Horrekin batera, astelehenetik egubakoitzera, mendia eta kirola gaitzat izango dituzten diapositiba emanaldiak egingo dituzte Monterronen. Azpimarratzekoa da, bost egunetatik bitan Arrasateko mendizaleak izango direla protagonista.

ASTELEHENEAN, PATXI USOBIAGA

Eskalatzaila eibartarrak estreinatuko du Mendi Astea, berea izango da-eta lehenengo emanaldia. *Patxi mundu bertikal batean* izenburupean, Usobiagak kirol arloan orain arte egin duen ibilbidearen berri emango du dokumental moduko emanaldia eginez. Kirol eskaladan hasi zenetik, munduko onenetakoa izatera nola iritsi den azalduko du, 45 minutuko DVD formatuko proiektioarekin.

MARTITZENEAN, IÑAKI FERNANDEZ

Iñaki Fernandez bizkaitarrak Australiaraino eramango ditu



BESAIDE MENDI ELKARTEA

Argazkiko Josu Juanek, Iban Silbarrek, Iban Okinak eta Mikel Sasiainek eguaztenean emango dute Andeen berri (19:00etan).

ikus-entzuleak *Espeleologia en las Antipodas* izeneko lanarekin. Hala, Australiako hainbat kobatan egindako azterketekin batera, lurralde haren gaineko hainbat berri emango ditu Iñakik.

EGUAZTENEAN, HIRU AMETS

Eguaztenean, Arrasateko eta Aretxabaletako lagun batzuei esker, amets egin ahal izango dute Monterronera hurbilduko direnek, *Hiru amets Apuen paradisuan* lanari esker. Joan den urtean, Josu Juan, Iban Silbar, Iban Oki-

na eta Mikel Sasiain Perun izan ziren, Andeatako mendietan gora eta behera. Eta, han jasotako bizi-penen berri ematea izango da euren helburua.

EGUENEAN, BITTOR AMOZARRAIN

Bittor Amozarrain da zortzimilako bat egin duen lehen arrasatearra, nahiz eta berak horri ez dion garrantzi handirik ematen. Udan bete ahal izan zuen bere ametsetako bat, G-2aren tontorrera igota. Horretarako, baina, uste baino denbora gehiago behar

izan zuen, eguraldiak ez zuelako batere lagundu. Hala, *Kapitain Piolet espedizioa G-2ra* diapositiba emanaldia eskainiko du eguenean Bittorrek.

EGUBAKOITZEAN, POU ANAIK

7 paretak 7 kontinente izeneko proiektuan dabilta anaiak gasteiztarrak buru-belarri, eta orain arte egin dituzten etapen gainean egingo dute berba, baita aurrerantzean egingo dituzten eskaladen gainean ere. Dagoneko lau etapa egin dituzte: Yose-

Aste barruko diapositiba emanaldiak 19:00etan izango dira, Monterronen

Mendiko bizikleta irteera bi egingo dituzte zapatuan, motza bata, eta gogorragoa bestea

miten, *El Niño 8a+/b* zailtasuneko bidea (2003), Bulneseko horman *Zunbeltz* izeneko bidea (2003), Afrikan, *Bravo les fille* bidea era askean (2004), eta azken joan den otsailean egin zutena Tasmanian, *Totem Pol*, hain zuzen.

ZAPATUAN, MENDI BIZIKLETA IRTEERAK

Domekan Aizkorriko mendiko maratoia egingo dutenez, Besaidekoek gurago izan dute egun horretan irteerarik ez egin. Hori bai, zapaturako bizikletan egin ahal izateko bi irteera antolatu dituzte, (09:00etan Musakolako kiroldegian) zailtasun maila ezberdinarekin. Bizikletan asko ibili ez direnek Udalatxi itzulia egingo diote. Beste irteerak 40 kilometro luze izango ditu: Arrasate, Aretxabaleta, Mendiola, Atxorrotx, Gatzagain, Kurtzeta, Untzilla, Arrasate. Kaskoa ibiltzea derri-gorrezkoa izango da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Biharkoa Herri Arteko Euskal Jokoen II. Topaketa izango da. Argazkian, lehenengo topaketan egin zuten probetako bat.

KIROLA KALEAN/ Jokin Zaitegi plazan eta Laubide plazan kirol hitzorduak

Bihar, 3x3 Saskibaloi Txapelketa, eta Herri Arteko Euskal Jokoen Topaketa

XABIER URTZELAI

Sasoi batean Roneo enpresa egon zen lekua kirol topagune bilakatuko da bihar. Batetik, Laubide plazan, 600 neska-mutikok 3x3 Saskibaloi Txapelketa hartuko dute esku. Eta metro gutxira, Jokin Zaitegi Plazan, herri probak egongo dira ikusgai.

Kilometroetako kirol egitarauaren barruan daude bihar arratsaldean (17:00etan), Arizmendik eta Xiba elkarteak antolatu dituzten Euskal Herri Arteko Jokoen II. Topaketak. Donostia aldetik hain-


bat talde etorriko dira, eta Arizmendik bi ordezkari izango ditu. Guztira 12 taldek hartuko dute esku, eta talde bakoitzean 12 lagun egongo dira. Gutxienez adina 16 urtekoa izango da, eta federatutako kirolariak etorriko dira.

OHITURAK BERRESKURATZEN

Ekimen horrek, besteak beste, garai bateko herri probak berreskuratzeko helburua du. Hala, Jokin Zaitegira hurbilduko diren ikusleek herri jasotzea, ingudea, lasto altxatzea, dantza, soka tira, txingak edo zaku lasterketa moduko probekin gozatu ahal izango dute.

3X3 SASKIBALOA, LAUBIDEN

Hori ez da, baina, guztia izango, Laubide plazan saskibaloia egongo delako ikusgai goiz eta arratsalde. Leintz Eskola Kiroleko arduradunek aurreikusten dute guztira 120 talde inguru izango direla bihar txapelketan. Hau da, gutxi gorabehera 600 neska-mutiko. Hala, txapelketa 10:00etan hasiko dute, eta 13:00etatik 15:00etara atseden hartu eta gero, 20:00ak arte jarraituko du txapelketak. Tartean, hiruko jaurtiketen eta jaurtiketa libre txapelketa ere egingo dute. Aurten ere, TAU Baskoniako eta Ointzekoen laguntza izango dute.



Besaideren urteroko irteera, Pagasarri

Aurten, Bizkaiko Pagasarriko inguruak aukeratu dituzte Besaideko beteranoek urteroko txangoa egiteko. Ekainaren 4an egingo dute irteera hori, baina datorren astelehena, hilak 23, izango da ize-na emateko azken eguna. Zollo, Pagasarri eta Ganekogorta inguruetan ibiliko dira Besaideko beteranoak, eta bi ibilaldi ipini dituzte aukeran. Gero, Gueñes-en bazkalduko dute, eta han, joan den udan G-II zortzimilakora igo zen Bittor Amozarrain mendizalea omenduko dute. X.U.

LABUR

Atletismoan bost domina; eta eskubaloian, AGRk galdu ezin duen norgehiagoka

Joan den asteburuan, gazte mailako Euskadiko Txapelketa jokatuta zuten Durangon. Aipatzekoa da Lander Errastik pertika jauzian egin zuen marka. 3,90 metroko jauzia eginda urrea eskuratu zuen. 400 metroko lasterketan zilarrezko domina irabazi zuen Lander Errastik, eta bi domina ekarri zituen Markel Blancok, brontzezkoak biak. Ezin aipatu gabe utzi Iñaki Etxagibel, laugarren izan zen-eta 100 eta 400 metroko lasterketan. Eta, azpimarratzekoa, baita ere, Maialen Axpek Eibarren irabazi zuen urrezko domina.

Eskubaloian, AGR Arrasatek ezin du huts gehiago egin, eta norgehiagoka guztiak irabazita ere, besteen emaitzen zain egon beharko dute datozen asteotan. Hasteko, Deustuko unibertsitatea esku hutsik joan beharko da bihar Iturripetik (17:00etan).

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - Billy & The Cowboys	5-7
AT Celaya - Irati Taberna	1-0
Goma2 - HLB 108	0-1
You Know! - Betraye	5-6
Torpedo Mus. - Manhattan Pippol	0-1
Tomahawk - Dribling	3-11
Saukelu Scream - Ekipo Aldeano	3-1
Fuxion - La Kuadrilla	8-4
Iriztu Taberna - Lasagabaster	2-6

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Saukelu Scream	30	18
2. Betraye	28	18
3. You Know!	26	18
4. AC Surcos	26	18
5. Lasagabaster	24	18
6. Dribling	24	18
7. Iriztu Taberna	24	18
8. AT Celaya	22	18
9. Billy & The Cowboys	18	18
10. HLB 108	14	18
11. Fuxion	13	18
12. La Kuadrilla	13	18
13. Abokajarro	11	18
14. Manhattan Pippol	10	18
15. Tomahawk	10	18
16. Ekipo Aldeano	5	18
17. Irati Taberna	0	18
18. Torpedo Musakola	0	18
19. Goma2	0	18

PARTIDUAK

MAIATZAK 21 ZAPATUA. EPAILEAK
16:45: HLB 108- Saukelu Scream. Antolatza.

KOPAKO FINALA, BIHAR ARRATSALDEAN

IRATI TABERNA, FUNDAMENTU BARIK IBILTZEAGATIK, EZ ZEN SAILKATU

Bihar jokatuko dute HLB 108 taldeak eta Saukelu Scream-ek kopako finala. Saukeluk bi txapelketa irabazi ahal ditu aurten. HLB-koak, berriz, daukatena ematera kantxaratu dira, Ligan ez dute-eta jarraitzeko aukerarik izango. Alde horretatik, aipatzekoa da Irati taberna ez zela asteburuan hurrengo fasera sailkatu ahal izateko norgehiagoka erabakigarria azaldu ere egin. Fundamentu gutxi.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Ordizia

Preferentea. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.

Aurrera Ondarroa - Mondra

Ohor. Gazteak. Domekan. 17:00. Ondarroan.

Arrasate - Bergara

Gazteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.

Arrasate - Antiguoko

Ohor Kadet. Zapatuan. 10:00. Atxabalpen.

Arrasate - Billabona

Infantilak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

Almen Aretxabaleta - Mondra

Emakumezkoak. Zapatuan. 11:30. Almenen.

Arrasate - Oiartzun

Alebinak. Domekan. 10:00. Ibarra (Aretxaba.)

ESKUBALOA

AGR Arrasate - Deustuko Unibertsitatea

Igoera fasea. Zapatuan. 17:00. Iturripen.

Bera Bera - Arrasate

Kopa gazteak nesk. Domekan. 10:00. Donostian.

Arrasate - Egia Servi-Chap

Kadeteak. Domekan. 11:30. Iturripen.

SASKIBALOA

La Salle - Mugarri Alkesa Arrasate

Juniorrak. Domekan. 12:00. Donostian.

Easo B - Mugarri Alkesa Arrasate

Kadeteak. Gaur. 18:45. Donostian.

3X3 SASKIBALOI TXAPELKETA

Zapatuan, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara, Laubiden.

HERRI ARTEKO JOKO PROBA TOPAKETAK

Zapatuan, 16:00etan, Jokin Zaitegi plazan.

BOTEPRONTUEN

Mikel Zuloaga

MENDIOLA AUTOAK

XABIER URTZELAI

Mikelek beratzu urte egin euen seguro asuntuetan lanien, eta gero hasi zan Leza Motorren, BMW etxiendako. Eguneru Oartzuneraiño juen gura ez, eta Eibarren dendie jartie izen zan hurrengo pausue. Eta, hurrengo errokie izen da Mondraguera etortie, Toyota eta Mazda kotxiak saltzera.

Bi marka horreittatik, ze azpi-marratuko zeuke?

Daukien fiabilidadie. Taille-rrera oso gutxi jueten dien kotxiak die, eta lehen ez moduen, oin rekan-bixuek merkiek diez.

Euren artien, ze ezberdinttasun dau?

Esango neuke bi marka horrein artien ez dauela diferentzia haundirik, bixek die gama berekuek.

Gero eta marka Asiatiko gehixau dauz.

Hamen bai, azkeneko urtiotan sartu diez fuerte. Kontuan hartu, baiñe, beste merkau batzuetan marka horreik, saltzerako orduen, lehenengo maillakuek diela. Japonesei ez dutze iñok kotxiak egitten erakutsiko. Urtiek eta urtiek dabitz-eta horretan.

Konpetentzia horrekin, lehenau euzen markak espabilau egin biher?

Aspaldi hasi zien espabiletan, hemen ez dau-eta lo geraketako aukeraik. Lehen bost marka baeuzen, oin hamabi dauz, hortxe dau kontue. Egun, iñok ez dau kotxe txarrik egitten. Marka italianuek diez adibide ona: sasoi baten kotxe makalak eukien, baiñe egun, Alfa Romeo batera sartzie baiñe ez dau hori kanbixau egin dala ikusteko.

Toyota eta Mazda artien, hamen Toyota ezaguketan dou gehixau, neurri haundi baten Corolla modeluegaittik.

Bai, eta Celica modelue be oso ezagune izen da.

Arrazoie, Carlos Sainz ibilli zan bi kotxe horreikin, baiñe Corolla modeluekin ez euen oso ondo bukatu.

Ez, egixe da hori. Neuk, baiñe



X.U.

“Lehen bost kotxe marka euzen hamen, eta oin hamabi dauz. Hamen ezin da iñor be lokartu”

rallyxek baiño 1Formulie jarraitetan dot gehixau.

Hortxe bai, hortxe Toyota fuerte dabil. Aurten, Ferrarrik beste diru gastau dauela esaten daue.

Ez dot pentsetan horrenbeste gastau dauenik, baiñe Renault-ek beste gastau dauela, bai. Monmelon egon nitzen karrerie ikusten, eta Toyotak oso fuerte ibilli zien. Ikustie besterik ez dau Ralf Schumacher zelau ibilli zan, dan moduko pilotue izenda (barrie).

Hamen kontzesionarixuen dauketzen kotxiartien, zein aukeratuko zeuke?

Seguruenik Toyota Corolla Verso modelue aukeratuko neuke.

“Japonesei iñok ez dutze kotxiak egitten erakutsiko, urtiek eta urtiek dabitz-eta horretan”

Erabilgarrixe, leku askokin, ekonomikue...

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Inguruen dauketen jentiek lana ondo egittie.

Zerek emuten dotzut begixetan min?

Batzuetan, jentien errespetu faltiek. Jentie libre da gure dauena gure dauen lekuen erosteko, hori argi dau. Baiñe, adibidez, kotxe bat probetako eskatu, kotxie probau deixen ekarri, eta probetako eskatu dauena ez etortie... Hori detaille zatarra da.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri? Eibar izetie (barrie).

NIREBIDAIAHURA/ Jokin Lazpiur

Shanghaira / Bi hilabete daramatza han

Gaur, hilak 20, abiatu da Jokin berriro ere Shanghai aldera, Arrasaten egin duen egonaldia ondo aprobetxatuta. Joan den asteokoari jarraituz, lurralde horren eta bertakoen berezitasun gehiago kontatzen jarraituko dugu: “Garatutako hiriak eta barrualdea ere ezagutu ditut, eta zeharo ezberdinak dira. Pekinen, Ningbo-n, Canton-en, Jinan Wuhan-en... Leku asko bisitatu ditut”. Azken asteotako albisteengatik Japoniaren eta Txinariaren arteko liskarren gainean galdetu diogu: “Aspaldiko kontu bat da hori, baina testu liburuetan hainbat aldaketa egin dituztela-eta, txinatarrek haserretu egin dira. Jarraitzen dute kale agerraldiak egiten, baina esango nuke ez daudela politikagatik oso arduratuta, aldatu ezin daitekeen zerbait dela ikusten dutelako-edo”.



“Hemengo enpresek Asiara joateko apustua egin behar dute”

Joan den astean ere aurre-ratu genuen, lan egiterako orduan kontuan hartu beharreko urrezko arauak daudela: “Hango negozio-gizonek, elkarlanean hasi aurretik, nolakoa zaren ikusi gura izaten dute, fidela, langilea, serioa... Balaratzen dute lehenengo lagun egitea, eta gero elkarrekin lanean hastea. Gauzak poliki-poliki egin behar dira, eta lasai. Alde horretatik, negozioak egiterakoan, gu zakar hutsak gara, eta han horrek ez du balio. Gainera, txinatar bati ezin zaio ezetz esan, ez dute gustuko. Hobe da, bai baina... moduko bat esatea”.

Horrekin batera, langileekin izan beharreko tratua ere asko zaintzen dute: “Nagusiak langile bati lankideen aurrean errieta egiten badio, langile horrek ez du nagusia sekula ere lagun moduan hartuko; *Loosing face* deitzen diote horri”.

Arlo ekonomikoan, Txina gora dator, eta hango enpresak hona datozenez, hemengoek ere hara joateko apustua egin behar dutela uste du Jokinak: “Unibertsitatean, arlo teknikoan oso maila altua dute, eta gazteak irrikan daude Asiatik kanpo zer dagoen ikusteko”.

XABIER URTZELAI



Shanghai, Peoples square, antzerkia eta atzean hotel ikusgarria.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrian erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

P

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



ATOR LIZARRALDE

Aurten ere Erdi Aroko Azokak kolorez eta jendez beteko ditu alde zaharreko kaleak.

KALE GIROA/ Bihar, zapatua, eta etzi, Erdi Aroko Azokaren bigarren edizioa

lazko kritikei kasu eginez, aldatuta dator Azoka

IKER BARANDIARAN

Iaz Erdi Aroko Azoka estreinatuta zuten herrian. Emaizta gazi-gozoa izan zen. Jende asko ibili zen azokan eta ikuskizunetan, baina euskararen eta herriko taldeen presentzia urriarengatik kritikak jaso zituen. Aurten-gorako hainbat aldaketa iragarri dituzte.

Joan den urteko Erdi Aroko Azokan jende asko batu zen. Ekintza asko izan ziren, eta ekitaldiek jakin-mina piztu zuten. Hala ere, herritar dezente haserretu egin ziren euskarak ez zuelako presentziarik izan eta herriko taldeek ez zutelako eduki esku hartzeko aukerarik.

Kritikak kontuan hartuta, Udalak hainbat aldaketa egin ditu. Are gehiago, aurtengo azoka Elgoibarko EAB enpresak antolatuta du. Iazkoa, berriz, Bartzelonako Pegasus enpresak antolatuta zuen. Udalak enpresarekin berba egin du, euskararen pre-

sentzia bermatzeko, eta ikuskizunetan euskara erabil dezaten.

IBAI ARTE, DOKE ETA MUSIKA ESKOLA
Udalak aditzera eman duenez, enpresak ekarriko dituen artisau, antzezle eta saltzaileez gain, herriko hainbat taldek ere esku hartuko dute. Musika Eskolako harizko bi taldek musika emanaldiak egingo dituzte; eta *Eskuak elkarri* ikuskizunetan sortutako *Doke* taldeak antzezlanak egingo ditu bihar, 19:00etan.

ARROPEN ERAKUSKETA, MONTEIRONEN
Ibai Arte merkatariaren elkarteak erabaki du alde zaharreko den-

dak apaintzea. Horrez gain, Ekin Emakumeak Elkarteak XVI. mendeko arropen erakusketa bitxia jarri du Monterronen. Asteburuan egongo da ikusgai. Herriko artisauak ez dute kale egingo, eta aurten ere hiru bat lagun izango dira euren artelanak saltzen.

AZOKAREN ESPARRUA HANDITU

Bestalde, joan den urteko ekintza gehienak ikusi ahal izango dira: malabarismoa, fakirrak, suge-sorgintzaileak, falkoneria, piroteknia, eta artisauen eta jakien saltoki ugari, besteak beste.

Ekitaldi eta saltoki ugari direnez, Udalak erabaki du azokaren esparrua handitzea. Hain zuzen ere, Seber Altube, Erdiko Kalea eta Iturriotz kaleaz gain, Maalako Errabalaren eta Olarte kalearen zati bana hartuko dute horretarako.

Horretaz guztiaz gain, asteburuan Arrasateko alde zaharra ikusteko bisita gidatuak hitzartu ahal izango dira Mankomunitatearen bitartez (943 79 64 63).

Herriko hainbat taldek esku hartuko dute eta azokaren esparrua handitu egingo dute

Juan Artzamendiri omenaldia, datorren asteburuan

I.B.

Juanito Artzamendi zenaren lagunek, ikasleek eta senideek omenaldia egingo diote datorren asteburuan, hilaren 28an eta 29an. Udalak ere babesa eman dio ekimenari. Antolatzaileek oso gogoan dute *maisua*, eta bere tamainako omenaldia egingo diote.

Joan den urtean, Juanito Artzamendi musikagile eta konpositore arrasatearra hil zenean, herritar askorendako kolpe latza izan zen. Horietako batzuk elkartu eta herrian musikaren arloan lan egiten duten elkarteekin batera *maisua*-ren tamainako omenaldia antolatzea erabaki zuten. Hain zuzen ere, Arrasateko Musika Eskolako Banda, Orkestra, San Juan Bautista elizako abesbatza eta Goikobalu taldea ibili dira lan hori egiten.

250 BAT LAGUNEN ELKARLANA

Antolakuntzan dabilen Luis Sagasta *Mane*-k azaldutakoaren arabera, Artzamendiren ikasleek eta berarekin hartu-eman izan zuten lagunek parte hartuko dute. "250 bat lagun batuko gara: 70 bat, bandan; 60 bat, Goikobalukoak; beste 60, orkestran; eta beste 60 bat lagun, San Juan Bautista elizako abesbatzakoak".

Arrasateko Musika Eskolako zuzendari Marta Eizagirrek aditzera eman duenez eskolako

hastapenetan ikasten ibilitako lagun asko batuko dira, besteak beste: "batzuek musika zaletasun moduan dute, beste batzuk musikari profesionalak dira... baina guztiak buru-belarri dabilta omenaldi-kontzertuak antolatzen".

Luis Sagastak azpimarratu zuen ekitaldi guztien aurrekontua 7.200 eurokoa dela. Gatu horien zati gehiena organo baten alokairurako, arpa jotzaile bat kontratatzeke eta musikari eta abeslarien luntxa ordaintzeko izango da. Bestalde, hori finantzatzeko Kutxaren laguntza izan dute, eta Udalak azpiegitura eta bestelako laguntza eskaini die.

HIRU KONTZERTU ERREPIKAEZIN

Zapatuan, hilaren 28an, Musika Eskolako Banda eta Goikobaluk kontzertua egingo dute Monterronen, 13:00etan. Iker Olazabal eta Iñaki Maidagan izango dira zuzendariak, hurrenez hurren. 20:00etan, berriz, Musika Eskolako Orkestrak eta Goikobaluk emanaldia egingo dute Amaia antzokian, 20:00etan. Juanitoren alaba Beatrizek zuzenduko du kontzertua. Bukatzeko, domekan, elizako abesbatzak meza abestua egingo du, 11:00etan.

Amaia Udal Antzokiko kontzertuko sarrerak salgai jarriko dituzte hilaren 25ean, 26an eta 27an, 18:00etatik 20:00etara, leihatilan bertan.



Musikagintzan lan egiten dutenek, senideek eta Udalak esku hartuko dute.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurriragindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak

IBILALDIA/ Etzi, domeka, Mugarriz mugarri Arrasate ezagutzen ekimena egingo dute

Anporreta mendiaren inguruak ezagutu eta kirol apur bat egiteko aukera aproposa

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, Mugarriz Mugarri Arrasate ezagutzen ekimena ibilaldi bat egingo dute. Monterronetik gora abiatuta, Anporreta mendia eta inguruak ikusteko aukera izango dute. AEDk antolatu du, Leintz Eskola Kirola eta Besaiderekin elkarlanean.

AEDk urtean bi hitzordu egiten ditu Arrasateko inguruak hobeto ezagutu eta bide batez kirol apur bat egiteko. Berez Mugarriz mugarri ekimena sortu zutenean helburua zen udalerraren muga guztiak ikustea. Buelta guztia egiteko lau etapatan banatu behar izaten zuten ibilbidea.

Aspaldian, berriz, udalerrian dauden inguru ezezagun samarrek erakusteko ahalegina egiten dute. "Askotan kanpora jotzen dugu leku politen bila, baina udalerrian bertan inguru ederrak ditugu ezagutzen ez ditugunak", azaldu zuen AEDko kultura-arduradun Kepa Lizarraldekin.

LAU BAT ORDUTAKO IBILALDI ARINA

AEDk antolatzen du ekimena, Leintz Eskola Kirola eta Besaiderekin elkarlanean, eta gero eta

Besteak beste, San Kristobal, Iturritxiki, Saburdi eta Antoña ikusiko dituzte

jende gehiago joaten da ibilaldietara. Joan den urtean, ehun bat lagun batu ziren. Horien artean, gaztetxoak, umeak eta helduak.

09:30erako egin dute hitzordua Arbolapetan. Monterron parketik abiatuko dira, eta San Kristobal gaineraino helduko dira. Han, ermitaren arrastoak ikusi ahal izango dituzte. Kanposantua atzean utziko dute eta Loro baserriaren albotik Udaltzen eta Arrasaten bista ederrak izango dituzte. Horren ostean, Anporreta gain ingurura joango dira eta herriko erretiratu batzuek konpondutako Iturritxiki iturrian atsedenaldira txikia egingo dute.

Saburdi baserriatik bueltan, Antoña baserria zegoen ingururitik Institutu atzera jaitsiko dira eta handik Musakolara. 13:30erako abiapuntuan, Arbolapetan, izango dira bueltan.



Gero eta gazte gehiagok daukate Arrasateko inguruneak ikusteko interesa.

Kepa Lizarraldekin argitu digunez, "oso ibilbide arina da, eta esanenez, gero eta gehiago ibilbideko aldapa

handiena Monterrongoa dela". Bestalde, Lizarraldekin azpimarratu du Monterronen gainaldea

ikustea ere bitxia dela, goikoa parke horren alderdi ezezagunena delako.

Musik(h)erria egitasmoak herri diskoetxea egin gura

I.B.

Markinan egindako Gaztemugi topaketetan Musik(h)erria izeneko egitasmoa abian jartzea erabaki zuten. Lehenengo batzarra Arrasaten egin dute, gaztetxean.

Musika alorrean lan egiten duten Euskal Herriko hainbat gaztek erabaki zuten musika talde eta

eragile txikiei protagonismo handiagoa emateko gailuak sortzea. Markinan egindako Gaztemugi topaketetan ideia hori bota zuten, eta ideia gauzatzeko batzarrak egin gura dituzte. Lehenengoa Arrasaten egin dute.

BITARTEKARIRIK GABEKO EKIMENA

Batzar horretan zehaztu zuten premia handiena dela herri diskoetxe bat sortzea. Han batuta-

koek azaldutakoaren arabera, "ekimen horretan ezinbestekoa da musika taldeen eta musika eragile txikien parte-hartzea. Are gehiago, euskara bultzatuko du, eta bide komertzialetik kanpo lan egingo du".

Nafarroako, Gipuzkoako eta Bizkaiko lagunak elkartu ziren, eta hurrengo hitzordua maiatzaren 28an egingo dute. Gasteizko gaztetxean izango da, 10:30ean.



Ekimenean lagun gehiagok esku har dezaten, hainbat herritan batzartuko dira.

kelnara
banda zabala

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Muruko antena etxetik ikusten baduzu, banda zabaleko eta kablerik gabeko internet zerbitzua izan dezakezu!

Horrela, hauek guztiak egin ahal izango dituzu etxetik bertatik herrira hurbildu gabe:

- **Goiena.net:** bailarako berriak, blog zerbitzuak... - **Banketxeko** tramiteak... - **Udalarekin** kontsultak...

- **Hezkuntza:** matrikulazioak, noten kontsulta... - **Aisialdia:** ekitaldietarako sarrerak... - **Erosketak** interneten...

Informazio gehiagorako, deitu telefono honetara: **943 79 81 91 (Kelnara)**

Seinalea jaso dezaketan auzoak: **Aramaio** (Untzilla, Azkoaga, Barajuen, Gureia, Zabola, Arexola, Etxaguen eta Gantzaga). **Aretxabaleta:** Aozaratza, Oro, Larrino, Izurieta, Galartza, Arkarazo eta Arenaza. **Eskoriatza:** Apotzaga, Mendiola, Bolibar eta Gellao. **Arrasate:** Udala, Bedoña, Garagartza eta Gesalibar. **Leintz-Gatzaga.**



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak

Astra GTC berria

Hain da dinamikoa, begiratu eta gerrikoa
jarri beharko duzu



Begiratu, hori bakarrik egin behar duzu. Opel Astra GTC berria arintasunarekin eta segurtasunarekin mugitzeko pentsatua dago. Ondorengo motorrak: 2.0 Turbo 200 ZP eta diesel CDTI 150 ZPraino, IDS eta Sport Switch sistemak, AFL faro moldakorrak, haizetako panoramiko eskusiboa, ESP egonkortasunaren kontrol elektronikoa, 6 aire-zaku, abiaduraren kontrola, barruko nabigatzailea, irratia-MP3 eta telefono integratua, 18" aleaziozko hagunak. Gidatzean disfrutatzeke behar duzun guztia.

www.astragtc.com.es

GMAC FINANCIAL SERVICES

Proba ezazu 3 egun* konpromisorik gabe ondorengo telefonora deituta 902 21 23 23, edo zure Opel Banatzailean.

Promozio baliagarria 2005eko maiatzaren 7tik ekainaren 30era. Probak egingo dira banatzaileek modelo honetako autoa prest baldin badute. Ondorengoentzako baliagarria: banatzaileen sarearentzat eta promozio honetan parte hartzen duten Espainiako Opel Salmenta Ofizialeko Agenteentzat. Notario aurrean utzitako oinarriak eskuragarri. Irakurri ondo, mesedez, autoa erabiltzeko dokumentuan agertzen diren baldintzak. Astra Gama GTC: Kontsumoa (l/100km) mistoa 4,8tik 9,3ra. CO₂ emisioa (g/km) 130etik 223ra.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE
www.giauto.es

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA
www.giauto.es

EZETZASMATU



'ARRASATE IRUDIAK' LIBURUA

Zein hiru auzok osatzen zuten Ugaran ibarra?
Arrastoa: ibar horrek Aramaiorekin muga egiten zuen.

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Carretilla zainzuriak
500g-ko lata+Musa maionesa

4,99€ 830pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

RUFINO DELGADOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Rufino!
Galderen erantzun zuzena:
Garagartzan.

ARRASATEKO HISTORIA

Gaizka Barandiaran, pertsona aberatsa hezkuntzan

UBANE MADERA

Joan den domekan, Gaizka Barandiaran arrasatearri omenaldia egin zioten Donostian. Euskal Herriko Txistulari Elkarteak eta Dantzarien Biltzarrak antolatu zuten ekitaldia, eta besteak beste, Gipuzkoako diputatu nagusiak parte hartu zuen. Euskal folkloreak gainean egindako lanarengatik errekonozimendua egin diote modu horretan Loiolan bizi den arrasatear jesuitari.

Labur bada ere, haren bizitzari erreparatzea egin gura diogu, hark egindakoa gogora ekartzeko. Josemari Velez de Mendizabal historialariak zabal jaso du arrasatear jesuitaren biografia (*Gaizka Barandiaran, bere bizitza eta lanak*). Hala, Oñatin jaio arren (1916), Gaizka Barandiaran umetan familiarekin Arrasatera etorri zela kontatzen du Velezek.

Zarugalden bizi izan zen Aita Barandiaran eta beti eraman zituen bihotzean eta buruan Marko Etxebarri (etxea) eta Arrasate. Hala erakusten du apaiztu zutenean ikaskideek egin zioten kantuak: "Barandi el chistulari/te habla el hebreo/y el arameo/ y sabe indoeuropeo/y toca



Gaizka Barandiaranek pozik hartu zuen Donostian egin zioten omenaldi beroa.

el chistu y tamboril/Y va siempre con Bañez/en Teología/ y va siempre con Bañez/sólo porque es mondragonés (...)"

Hain zuzen ere, 1947an apaiztu zuten Gaizka Barandiaran, Oñan. Lehen meza Arrasateko San Juan parrokiaren esan zuten, urte bereko abuztuaren 24an, Iña-

*XX. mendeko
Arrasateko pertsona
esanguratsuenen
artean dago Gaizka
Barandiaran*

rra parrokoa aitabitxi zuela.

Baina esan beharra dago apaizgoarekin lotutakoez gainera, bestelako ikasketa ugari ere egin izan dituela Gaizka Barandiaranek. Oratoria, hizkuntzak (euskara, espainiera, frantsesa, alemana, grekoa eta latina, besteak beste) musika, filosofia, irakasle ikaske-

tak... Esaterako, klasikoak euskarara itzultzen lan handia egin zuen (Homeroren Iliada) eta maki-natxo bat lan argitaratu zituen sasoiko argitalpenetan (Euzko Gogoia, Egan, Zeruko Argia...).

Euskal folkloreakin lotuta, berriz, geroago etorriko ziren dantzarietara eta txistularietara oso lagungarri izan zitzaizkien liburuak eta artikuluak argitaratu zituen, euskal dantzaren ikasketxearen beharra aldarrikatu zuen, dantza-talde bat baino gehiago sortu zen hari esker, eta besteak beste, lan ordu ugari eskaini zizkion Euskal Dantzarien Biltzarrari. Liburuaren artean esanguratsua da, esaterako, *Danzas de Euskalerri I, II, III eta IV*. Hala dio Inazio Ansorena txistulariak: "Neure aldetik aitortu behar dut, Gaizka Barandiaran niretzat adiskideaz gainera, maisua izan zela. Bere obren bitartez eta berarekin izandako harreman pertsonalaren bidez ikusi nuela hainbat ikerkuntzaren beharra eta zein zen horiei ekiteko metodo egokia. Eta, neurri handi batean, nik egindako lanak, oraindik prestatzen aritzen naizenak ere, Isidro aitonaarekin eta Jose Luis osabarekin bezala, Gaizkarekin ere zordun dira eta izango. Mila esker Gaizka Barandiaran, gizon jator, langile, arraitsu eta abegina".

ARGAZKI PRESS

arrasate musikal



Matrikulazio epea zabalik:
Maiatzaren 23tik
ekainaren 22ra.

Berritasunak:

- Gaita
- Harmonia modernoa

4 urtetik aurrera.
Helduentzako eskolak.
Balleta



Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Orduetgia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

AU SART

ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txero Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA

UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a

381. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Ehungarren urteurreneko ospakizunak antolatu ditu Agustindar elkarteak

MIRARI ALTUBE

laz egin zituen Agustindar elkarteak 100 urte gure artean. Orduan, baina, ez zuten ospakizunik egin eta orain egingo dituzte. Gainera, aurten, 25 urte bete dituzte komentu berrian eta 500 urte inguru Arrasaten Agustindar elkarteak sortu zela.

Hiru urteurren ditu ospatzeko Aretxabaletako Agustindar elkarteak. Gaur hasi eta iraila bitartean hainbat ekitaldi egingo dituzte komentuan.

HISTORIA JASO DUTE LIBURUKAN

Iaz bete zituen Agustindar elkarteak 100 urte Aretxabaletan. Orduan, baina, ezin izan zuten ospatu urteurrena eta orain egitea erabaki dute. Gainera, beste urteurren bi ere badituzte: 500 urte inguru elkarteak sortu zela Arrasaten eta 25 urte Aretxabaletako komentu berrian.

“100. urteurrenak ospakizun berezia merezi zuela uste genuen, eta artxiboetan hasi nintzen begira gure elkartearen historia batzeko asmoarekin” dio Arantxa Jaka Agustindarrak. Liburuxka kale-ratuko dute, baina hori irailean izango da. Udalarekin bat eginda egingo dute liburuxkaren aurkezpena: “100 urte egin ditugu Aretxabaletan eta herri honetako kulturaren historian zeresana izan dugulakoan gaude. Gainera, 100 urte horietatik 47 hezkuntzan eman ditugu” dio Arantxak.

GOTZAINAREKIN EUKARISTIA

Gaur, egubakoitza, Capilla Gregoriana del Coro Easo Abesbatza etorriko da Agustindarren komentura. 19:30ean hasita emanaldi bikaina eskainiko du. Ospakizun garrantzitsuena, baina, ekainaren 5eko eukaristia izango da. Joan Maria Uriarte elizbarrutiko gotzaina izango da bertan, eta Aretxabaletako Abesbatzak eta Jose Manuel Azkue organo joleak egingo diote lagun. 12:00etan izango da meza, komentuan.

Ekainaren 17an, ostera, organo emanaldia izango dute. Esteban Irusta Oñatiko parrokiako organo jolea etorriko da. “Otoitzak, kantuak eta musikak garrantzi handia daukate gure bizitzan eta horixe erakutsiko dute emanaldi hauek” dio Arantxak.

SANTA RITA EGUNA, ASTELEHENEAN

Domekan Santa Rita eguna da, Aretxabaletako Agustindarren zaindaria. Ospakizuna, baina, astelehenean egingo dute. Meza bi izango dituzte: 11:00etan eta 19:00etan. Jarraitzaile asko ditu Santa Ritak ibarrean eta jende asko batuko da ospakizunean.

“Herri honetako kulturaren historian zeresana izan dugu; 47 urte egin ditugu eta hezkuntzan”



Iaz bete zituen Agustindar elkarteak 100 urte gure artean, eta orduantxe atera zuen elkarteak argazkia.

Ehun urte baino gehiago Aretxabaletan

Arrasatetik etorri zen Agustindar elkarteak gurera 1904an. 1542koa da ezagutzen den lehenengo dokumentu idatzia. Moja buruaren eta beste zazpiren izenak azaltzen dira bertan, baita kokapena ere: “Arrabal de Zarugalde, fuera de Mondragón, en el camino real para Durango y Bilbao, así como para la villa de Aramayona y aun para la ciudad de Vitoria”.

Otalora Bainuetxea erosi zuten Aretxabaletan inguruko lursail eta guzti; 75.000


pezetaren truke erosi ere. Guztira 16 moja bizi izan ziren lehenengo urtean, gehienak arrasatearrak. 75 urte baino gehiago egin zituzten bainuetxean, baina herrian egin behar zituzten aldaketen ondorioz komentu berria eraiki zuten 1980an.

1957an, herritarren eskaerari erantzunez, eskolak ematen hasi ziren, eta horretan ibili dira 47 urtean. Iaz itxi zituzten ikastetxe atea, eta orain otoitz lekua izan dadin gertatzen dabilta komentua.



Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com



FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 21
FRAILE.Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 22
FRAILE.Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria-saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALITZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIAK

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Tokiko Agenda 21: martitzenean bilera

M.A.

Tokiko Agenda 21 garatzen joateko bigarren bilera egingo dute martitzenean, maiatzak 24. Foroa sortuko dute zelako herria gura dugun eztabaidatzeko, eta herritarren parte-hartzea behar bezalako dela dio Jose Anjel Antxia Ingurumen zinegotziak.


Martxoan egin zuten lehen bilera Tokiko Agenda 21 zer den azaldu eta Udalak hartutako konpromisoaren berri emateko. Foroa sortzea erabaki zuten orduan, herritarrek zuzenean diseina dezaten Aretxabaletaren etorkizuna. Martitzenean, hilak 24, 19:00etan izan-

go da bilera udaletzeko ganbaran. Eragile sozialei egin diete dei, talde eta elkarteetako kideei, baina herritar guztiei dago zabalik.

Bukatzen dabilta Aretxabaletaren gaineko diagnostikoa, eta zirriborroa aurkeztuko dute. Fitxak banatuko dizkiete gero elkartutakoei herria zelan dagoen baloratzeke. Bai ingurumena, bai gizarte eta ekonomi arloak baloratu beharko dituzte.

URKULUREN GAINEKO PROIEKTUA

Udala Urkuluren gaineko proiektua egiten dabil Naturgintza fundazioaren aholkularitzarekin. Proiektua aurkeztuko dute martitzeko bileran, eta foroko kideen iritzia jasoko du.



Tokiko Agendako gaiekin batera, Urkuluren gaineko proiektua aurkeztuko du Udalak.



Ume zein nagusi ezin hobeto Otala Zelain


Euri zaparraden beldurrez joan ziren herritar asko, baina portatu zen eguraldia. Egun pasa bikaina gertatu zuen Kultura Saialak: animaliak eta jokoak umeen gozagarri eta sagardoa, bertsoariak eta musika nagusiak girotzeko. 14 paella egin zituzten, eta sari nagusia Manoliren taldeak jaso zuen. /M.A.

LABUR

1940an jaiotako aretxabaletarrek afaria egingo dute uztailaren 2an, Taberna Berrin

Aurten 65 urte beteko dituzten aretxabaletarrek, hau da, 1940an jaiotakoek, kinto afaria egingo dute datorren uztailaren 2an. Urteurrenak eskatzen duen moduko ospakizuna egiteko lehenengo meza izango dute parrokian, hildako kinto guztien alde, eta ondoren Taberna Berri jatetxean afaria.

Oraindik astia egon arren kintoek lehenbailehen izena eman dezaten gura dute antolatzaileek. Hala, Taberna Berri jatetxean eman daiteke izena, edo bestela, 656 79 93 97 zenbakira deituta.



Propaganda
Kartelak
Jai egitaldiak
Pegatinak
Liburuak
Errebistak

EGUZZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnua: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68



ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26



Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

Expres



Santakurtz 16
943 79 23 43


Ekudorko Rukullaktan duen proiektua bukatzen dabil Hiruatx

M.A.

Hiruatxek Ekudorko Rukullakta herrian duen proiektua bukaerara heldu da. Pentsuak eta oilaskoak ekoizteko hainbat kooperatiba sortu dituzte hiru urte eta erdian Ibon Antero kidearen laguntzarekin. Proiektua bukatzeko, baina, 20 mila euro behar dituzte.

Dagoeneko hiru urte eta erdi pasatu dira Hiruatxek Ekudorko Amazoniako kichwekin proiektua hasi zuenetik. Tarte honetan kooperatibak egin dituzte, animalendako pentsua eta oilaskoak ekoizteko kooperatibak, eta Hiruatxeko kide den Ibon Anteroren laguntza izan dute.

Lan egiteko eran ere aurrerapauso handiak eman dituzte Ibonen esanetan, eta kooperatiba zer den, nola kudeatu behar



IBON ANTERO

Oilategiak eraikitzen eta kudeatzen ikasi dute Ekudorko kichwek.

den eta beste hainbat jakintza jaso dituzte. Rukullaktako proiektua bukatzen dabilta Hiruatxeko kideak, baina guztiz buka-

tzeko oraindik 20 mila euro behar dituzte. Hortaz, aretxabaletarrei laguntza eskatu gura diete hurrengoarekin hasi aurretik.

Euskararen Egun dotorea, bihar

M.A.

Euskararen Asteari bukaera emateko Euskararen Eguna egingo du bihar Loramendi EEk. Gazta dastatzea, bertsolariak eta antzerkia izango ditugu, besteak beste.

Urteroko hitzordua da Loramendi EEk antolatzen duen Eus-

kararen Eguna, eta aurtengoa bihar dator, dotore etorri ere.

Kanpai jotzea izango dugu 12:00etan. Hainbat kanpai doinu joko ditu Jose Olabek bost minutuko tartearrekin. Orduantxe hasiko dira umeendako tailerrak ere Herriko plazan. Eguerdipar tean gazta dastatzeko aukera egongo da Mitarte kalean bertsolarietako girotuta: Maialen Lu-

janbio eta Sustrai Colina Leintz bertso eskolako gaztetxoekin.

Babarrunak bazkaldu gura dituenak plazan izango du aukera, eta ostean Trilkimailu talde aretxabaletarrak *Deblauki* antzezlan estreinatuko du. Zirika Zirkus taldeak arratsaldea girotuko die umei, eta Gazte Ekinenak eta Mulambo perkusio taldeak gainerako guztiei.

LABUR

Ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak astelehenean, kultura-etxeke lanak hasteko

Astelehenean, maiatzak 23, ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak. Herriko plazan dagoen zinema zaharra botatzeko kultura-etxea Iralabarri plazako lokaletara pasatu behar dute, eta hain zuzen lokal horiek egokitzeko lanak lehenbailehen hasi gura dituzte. Udalak hainbat baldintza jarri zituen: lanak hiru hilabetean bukatzea eta 258. 800 eurotik beherako aurrekontua izatea. Bost enpresa eraikitzaile aurkeztu ziren, eta astelehenean erabakiko dute lokalen egokitzeko lan horiek nork egingo dituen.



Aurkeztu dute Udalaren irudi berria

Arritxu Oliden alkateak eta Arteman agentziako Goio Arana diseinatzaileak aurkeztu zuten Udalaren irudi berria. Oso pozik azaldu ziren biak irudi moderno, argi eta gogoan hartzekoa lortu dutelako, beti ere herriaren sustraiak galdu barik. Politikopoliki Udaleko arlo guztietara zabalduko dute. /M.A.

Karlos
Harakina
Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABALETA

J.J. IRURE
ITURBENTZAN
URA
GASA
KALEFAKZIOA
MITARTE, 15
ARETXABALETA
943 793 187

IRIARTE
Umeen
denda
Helduen
lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

SUNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

Jou Diaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Aretz
taberna
"Oilasko erreak eta paellak eramateko"
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP
Garbiketa
orokorrak
Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

AZKARATE
aroztegia
943 76 47 19
eta 610 88 40 20
ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak
LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO
INDUSTRIALDEAN
BERGARAN

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze egin biherko litzake herriko komertziue biziberritu eta bertan erosteko?




SABINA IGARTUA
Jubilaue



MANUEL URANGA
Jubilaue




KONTXI HERIZ
Jubilaue



PEDRO JULIAN OSA
Langillie



BLASI ARENAZA
Langillie



ANDRES DURAN
Jubilaue

Bezeruei begire ekintzaren bat egin biherko leukie komertziuek iguel. Hala eta be oso ohittute gaz kanpora faten, hortaz, kontzientzia gehitxuau hartu biherko geuke herritarrok.

Jentiek kanpora fateko ohi-tturie hartu dau, zapatu atsaldie pasau, eta bittartien erosi. Herrixe hutsik geraketan da. Errifak banatu edo antzeko zeozer egitten hasi biherko die.


Denda konpletuaguet, gauza gehixau daukienak iguel biher dittugu Vittorixara ez gaittezen fan. Herri txiki danetan pasetan da, eta hemen be aste goixenien inhor ez da geraketan.

Erostenbaino gehixau egun pasa edo atsalde pasa faten dala jentie uste dot. Genero bariedade gehixau, eta merkiaue topetan da denda haundixetan, eta preziuek be eukiko dau eragiñe.

Normalien herrixen bertan erosten dot, baiñe egixe da kanpora faten dala jentie. Erropak erosteko iguel ez dau hainbeste aukera baiñe beste gauza batzuetarako bai: okelie, arraiñe...

Prezio iguela euki arren erosi biherrekuek egun pasa faten dala jentie kanpora uste dot. Zaille ikusten dot zeozer egin ahal izetie, merketxuau saldu edo errifak banaketan hasi iguel.


TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK KOMUNAK OTALA ZELAIN Eguraldi ederra eta giro ezin hobea sortu ziren joan zen domekan Ojala Zelain. Hainbat berritasun egon dira aurtan, sagardo kupela eta bertsolariak esaterako. Hala ere berritasunik handiena komunak izan dira, zalantza barik. Gazte zein heldu, neska zein mutil, guztiok hartu genituen gustura, eta zelaiaren inguruak ere eskertuko zuen. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Alberto Inurrategik 14. zortzi milakoa igo zuen



Alberto Inurrategi mendizale aretxabaletarra 2002ko maiatzaren 16an heldu zen Annapurnako gailurrera. Harekin hamalagarren zortzi milako mendia igo zuen, eta hamargarrena izan zen hori lortzen; guztien artean gazteena. 8.019 metro ditu Annapurnak eta Nepalen dago.

ASTEKODATUA

26

MILA EURO HERRIKO KOMERTZIOAK BULTZATZEKO

Herriko komertzioen gainean azterketa sakona egiteko diagnostikoak egiten dituen enpresa bat hartuko du Udalak. 26.000 euro erabiliko ditu gure herriko komertzioak bultzatzeko.

BESTEKEKESANA

Bidezko merkataritzan hiru erosle mota daude: produktu ona nahi duena, ekologikoa, kalitate onekoa eta duintasunez ekoiztua; erosketa arduratsua egiten duena, zer erosi behar duen eta salmenta noren mesedetan egiten den galderak egiten dituen; eta herri pobretuen alde jokatu nahi duen militantea.

JOSE MARI SARASUA
'Astelehenero Goienkaria'/05-05-16

Gutxitan antolatzen dira Debagoieneko I. Trikitixa Eguna bezalako jaiak. Festa gustatzen zaigu guri, jendea ezagutzea gehien bat, eta Bergarako eta Elgetako ikasleak, esaterako, ez genituen ezagutzen. Trikitia jotzen dutenen artean Kepa Junkera dugu gustuko.

LEIRE, NEREA, ELENA ETA NAHIA
'Astelehenero Goienkaria'/05-05-16

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



112
(uno uno dos)
Emergencias

Tokatu izan zait, bai, telefono honetara deitzea. Lehenengo aldiz, aurtengo neguan izan zen, elurteak egon ziren egun haietako baten. Gaueko 11:00ak ziren, kristoren izotza, autoa labaindu eta saihebidetako mendia jo ondoren, bide erdi-erdian geldituta ezin mugitu, ez aurrera ez atzera. Arriskuan eta handik ateratzeko inongo itzaropenik gabe. Gainera, eta horrelako egoeratan gertatu ohi denez, garabiak greban zeuden. Han gogoratu genuen "112 Larrialdia". Horrela ba, laguntza eske, 112 markatu eta telefonoa hartu zidanari gure egoera kontatu nion, berak agian lagundu, aholkatu edo zerbait egingo zuela pentsatuz. Guztiz harrিতa geratu ginen, urduritasun momentu hartan, eta laguntzeko, aholkatzeko edo dena delakoa egiteko intentzio guztiak edukita ere, beste aldean zegoenak gaztelaniaz erantzun zidanean. Ez zidan piperrik ere ulertu

esandakoa eta han ari nintzen ni, automobila aldapan behera aurrerantz labaintzen zihoan bitartean, abentura guztia berriro gaztelaniaz kontatzen. Bigarren aldiz orain gutxi deitu dut, kamioi bat bide erdian ikusita eta denbora pasa ahala, inongo laguntzarik etortzen ez zela ikusi ondoren. Eta orduan ere berdin, guztia kontatu ondoren berriz gaztelaniaz kontatu behar, beste aldekoak lehenengo ulertu, eta ondoren, zerbait egin zezan. Hirugarren aldiz, nork daki zer gertatuko den. Telefonoa hartzen duenaren arabera izango da. Euskaraz jakingo duen, gauza bera bi aldiz kontatu beharko zaion, edo berandu izan baino lehen, larrialdiari konponbidea emateko "denbora kritikoa" itzulpenetan pasatuko zaigun... Nola liteke larrialdietako telefonoan larrialdia bi aldiz kontatu behar izatea ulertzen ez nautelako? Larrialdi egoeretan ere ezin gara euskaldun izan?

"Nola liteke larrialdietako telefonoan larrialdia bi aldiz kontatu behar izatea ulertzen ez nautelako?"

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a / 209. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: 55200/99

Elizateetako auzo bideen inbentarioaren aurrerapena egin dute, Udalak eskatuta

IKER BARANDIARAN

Elizateetako auzo bideen inbentarioa egin dute. Dagoeneko aurkeztu dute haren aurrerapena eta udaletxean dago elizateetakoek ikus dezaten. Interesatuak ekainaren 15era bitarteko epea dute inbentario horri alegazioak aurkezteko.

Ezagun da baserri auzoetan tarteka bideen eta lurzoruen jabetzaren gaineko arazoak izaten direla, kaletarren artean bestelakoak izaten diren moduan. Eta Eskoriatzan ere halakorik gertatu izan da. Halako arazoak saihesteko eta beste batzuk sor ez daitezela Udalak erabaki zuen udalerriko bide publikoak katalogatzeko lana egitea. Horretarako, nekazaritzako aditu den Tomas Madinabeitiarekin harremanetan jarri ziren. Madinabeitiak denbora luzea behar izan du lan hori egiteko, eta dagoeneko emaitzak jaso ditu.

UDALETXEAN DAGO IKUSGAI

Madinabeitiak elizateetako bideak hainbat sailetan banatu ditu: herri errepideak (Aldundiaren kargu daudenak), udal bide publikoak (horien artean, zoladura-dunak eta zoladura barikoak



Udalerria zazpi elizatek osatzen dute, eta tartean auzo bide asko daude. Irudian, Apotzaga elizatea.

bereiztu ditu) eta bide pribatuak (baserrien sarbideak direnak). Horretaz gain, trenbideak eta basoetako pista nagusiak ere jaso dira egindako lanean.

Gainera, bide publiko bakoitzaren ezaugarriak ere batu ditu. Besteak beste, non hasi eta non bukatzen den, duen luzera eta zabalera, zoladura (bidea zer

materialez eginda dagoen), urteko sasoi bakoitzean izan dezakeen erabilera, ze garraio motarekin erabil daitezkeen, eta zer egoeratan dagoen, besteak beste.

Informazio hori guztia, elizate bakoitzeko planoekin ikusgai dago udaletxean, goizez eta arratsaldez. Interesatuak hara jo beharko dute. Jasotakoarekin konforme ez badaude, ekainaren 15era arte dute alegazioak aurkezteko epea.

UDALARENDAKO ERREMINTA APROPOSU

Udalaren helburua da udalerriko bide publikoen gaineko informazioa jasotzea. Hala, Udaleko ondasun inbentarioan bide publikoak eransteko prozedura administratiboari hasera eman ahal izango dio.

Azken finean, inbentario hori eskubide eta ondasunen gaineko informazio baliabidea da. Horri esker, auzotarren arteko edozein arazo edo tirabiraren aurrean, Udalak jabetzaren gaineko ziurtasuna izango du. Hain zuzen ere, inbentarioa izango da eskubide horiei babesa bermatzeko euskarria. Are gehiago, auzotarrek bide horien titulu edo agiririk ez dutenean inbentarioak agiri berezi gisa balio ahal izango du Jabetza erregistroan.

Madinabeitiak lan hori egin ahal izateko, Udalaren eta Aldundiaren dokumentazioa, artxiboa eta erregistroa aztertu ditu, eta elizateetako alkateekin eta adituekin batzarrak egin ditu.


Gellaon eta Marulandan, tirabirak

Eskoriatzako hainbat elizateetan arazoak eta tirabirak daude bide publikoengatik. Marulandan auzotar batek bide bat moztu zuen. Horregatik, inguruko lagun batzuk haserre daude, euren esanetan bide hori publikoa, hau da, edonork erabiltzeko modukoa, delako. Ez dira ados jarri, eta bi aldeek udaletxera jo dute arrazoia eman diezaieten.

Gellaon ere antzeko arazoa dute. Iazko uztailan auzotar batek bi harri handi jarri zituen bide baten, Peruena baserriatik San Antonio ermitara bitartean. Inguruko kaltetuen esanetan, Aretxabaletatik Untzillara joateko auzo bidea da, eta ezin du inork moztu. Uztailan bi aldeek, kaltetuek eta harria jarri zuenak, udaletxera jo zuten. Udalbatzarrak uztailleko osoko bilkuran

erabaki zuen bidearen izaera ikertzea. Prozedura abian jartzean, bi aldeei eskatu zieten bidearen gaineko agiriak aurkezteko. Hala egin zuten, eta auzotarrek azaroan eta martxoan hainbat alegazio aurkeztu zituzten. Ordutik Udalaren erabakiaren zain daude. Bidea erabili ezin dutenak oso haserre daude "baserri-lanak egiteko beharrezko bidea ia urtebetez erabili ezin izan dugulako, publikoa dela frogatzeko agiriak eraman genituelako eta erantzunik ez daukagulako. Konponbide bat aurkitu beharko dugu guk".

Alkateak azaldu digu idazkariak eta aholkulari batek bide horien gaineko txostenak egin beharko dituztela, eta osoko bilkuran erabaki beharko dutela. Horren ostean, alegazio epea zabalduko dute, eta horiek jaso ostean, behin-betiko erabakia.



Argazkian, Gellaoko auzo bidea harriekin moztuta.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaizta (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ARETO FUTBOL TALDEARI OMENALDIA

Mailaz igo da, eta hurrengo denboraldian lehenengo B nazional mailan jokatu du. Etzi, domeka, udaletxearen omenaldia, 13:00etan.

EUSKARAREN KALE ERABILERA

Astelehenean, hilaren 23an, Euskararen Kale Erabilera-aren Neurketako emaitzak aurkeztuko dituzte kultura-etxean, 18:00etan.

EGUAZTENEAN, BERTSO JAIALDIA ALMEN GUNEAN

Eguaztenean, hilaren 25ean, bertso jaialdia egingo dute, 17:30ean. Luis Ezeizan eta Almenen ahozkotatua eta bertsolariak landu dituzten ikasleek egingo dute.

ERROMERIA DANTZEN IKASTAROA

Udalak erromeria dantzen ikastaroa antolatu du. Hilaren 26tik aurrera egingo dute, eguenera, 19:30etik 21:00etara, pilotalekuan. Inskripzioa 6 euro da eta kultura-etxean eman behar da izena.

Etzi, domeka, Zazpi Elizateen II. Martxa

I.B.

Etzirako, domeka, Zazpi Elizateen II. Martxa antolatu dute. 07:00etan egin dute hitzordua herriko plazan, eta udalerriko ingurune ederrenak ikusiz, bost bat ordutako ibilaldia egingo dute. Gazte zein helduendako moduko ibilaldia dela aditzera eman digute antolatzaileek.

Joan den urtean proba egin zuten, eta ekintzak oso harrera ona izan zuten. Iaz herriko lau bat lagunek erabaki zuten zazpi elizateetatik barrena ibilaldi bat antolatzea. "Ez zuen inork halakorik antolatu, eta udalerrian dauzkagun altzorrek ezagutzeko modu aproposa dela pentsatu genuen", azaldu zigun Jose Manuel Crespok.

Pentsatu eta egin. Euren kabuz antolatu eta 65 lagun batu ziren herriko plazan lehenengo orduan. Ibilbide polita egin zuten, eta herri-tarrak oso gustura gelditu ziren. "Badakigu jendea gustura ibili zela, hala esan zigutelako, eta uste dugu aurten ehun bat lagun batzeko aukera izango dugula",

Etzirako, domeka, herriko plazan egin dute hitzordua. Ibilaldia egin gura dutenek 07:00etan egon

beharko dute han. Handik Boli-barrera joko dute. Gero, Mendi-lara joango dira eta handik Gellara. Horren ostean, Apotzagara joko dute, eta handik San Adriana igoko dira. Han, ermitan, hamarretakoa egingo dute. Indarberrituta, Marinerantz joko dute. Ostean Zarimutz eta Mazmelatik igaroko dira, eta herriko plazara jaitsiko dira.


JATEKO ETA EDATEKO EMANGO DUTE

Antolatzaileek aditzera eman dute ibilbidea ez dela gogorra. "Bi alda-pa nabarmen bakarrik daude. Bata, Apotzagatik San Adriango ermitara igotzeko; eta bestea, Boli-bartik Mendiolara bitartean. Bestela, ibilbideak ez dauka zailtasun berezirik".

Aurten hainbat berrikuntza egin dituzte. Batetik, ibilbidean zehar jana eta edana emango dute, hau da, txangozaleei jatekoa eta edatekoa emango diete. Horrez gain, ibilaldia bukatzean salda banatuko dute herriko plazan.

Antolatzaileek aditzera eman digute eguraldiak lagunduko ez balu ere, aurrera egingo dutela.

Bestalde, nabarmendu dute ibilbidean barrena Anboto, Udalatx, Kurtzeberri eta Aitzorroitzen bista ederrak daudela.



Musika Eskola dagoen eraikinean, oktogonoan, jarriko dute haurtzaindegia.

Haurtzaindegi publikorako 313.000 euro aurreikusita

Astelehenean Eskoriatzako udalbatzarrek ezohiko osoko bilkura egin zuen haurtzaindegi publikoaren proiekturako diru partida handiagoa onartzeko. Aurretik, lan hori egiteko, 200.000 euro onartuta zituzten, baina partida hori handitzeko beharra ikusi dute, eta beste 113.000 euro batu dizkio-te kopuru horri.

Udalak onartuta dauka Musika Eskola dagoen tokian (oktogo-

noan) haurtzaindegi publikoa jartzea. Horretarako, lokal hori egokitu beharra dauka. Aurrekontua handitzeaz gain, enpresen eskaintzak aurkezteko plegua onartu zuten.

Bestalde, egungo Musika Eskola Museo Eskola zegoen lekura (Hidalga kalea) eramane gura dute, eta horretarako Hidalgo kaleko lokala egokitu beharko dute. Enpresen eskaintzen zain daude.



Petti bakarlariaren emanaldi akustikoa

Etzirako, domeka, hitzordu polita antolatu du Axtroki elkarteak. Aurretik egubakoitzerako iragarri zuten arren, domekan egingo du Petti musikariak kontzertua gaztetxean. 19:00etan izango da, eta sarrera doan da.


Berako Petti musikariak hiru disko ditu (*Amets bat*, *Arrazioak* eta *Etxeko uzta*). Pop-a, rocka eta giro ilunagoak uztartzen ditu. Kontzertuak taldearekin zein bakarka ematen ditu. Eskoriatzara bakarrik etorriko da, gitarra akustikoarekin //I.B.

LABUR

Etixeraten salaketa eta Apartheid-aren kontrako bilkura

Etxeratek salatu du joan den zapatuan Marixol Iparragirrenen senideek istripua izan zutela bisitatik bueltan. Senide batek saihesta apurtu zuen, besteak begian kolpe bat du eta hirugarrenak kolpe asko ditu. Horrez gain, salatu dute Mikel Illaramendi presoak La Santetik Moulinoko espetxera eramane dutela, familiaria aditzera eman barik.

Bestalde, eguaztenean, hilaren 25ean, apartheid-aren kontrako bilkura deitu dute. 19:30ean, plazan izango da.



Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Gastahadul auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko maiatzaren 20a / 151. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Pertsona nagusiendako laguntzak: komunak berritzeko eta oporretarako

UBANE MADERA

Pertsona nagusiei eskaintzen dizkieten laguntzen artean, etxeke komunak berritzeko eta udan oporretara joateko abian daude orain. Hain justu ere, komunak berritzeko laguntzak eskatzeko epea zabalik dago; oporretarako, astelehenean zabalduko dute.

Mejora Fundazioak ematen ditu etxeke komunak berritzeko laguntzak. Vital Kutxaren ekimena da, Arabako Diputazioarekin elkarlanean. Pertsona nagusien segurtasuna, autonomia eta mugikortasuna hobetzen laguntzera bideratuta dago ekimena. 65 urtetik gorako pertsona nagusiei zuzenduta dago, betiere bakarrik bizi badira edo beste pertsona nagusi batzuekin bizi badira. Eta bizi diren etxebizitzaren jabe edo jabeak badira.

ZERTAN LAGUNTZEN DUTEN ETA ZENBAT

Komunik ez duten etxebizitzetan komunak ipintzeko diru laguntzak ematen ditu Mejora Fundazioak. Baita pertsona nagusiei laguntzen dieten komuneko aparatuak ipintzeko ere.

Hala, komuna ipini nahi duen pertsona nagusiak urtean 4.980,72 euro baino gutxiago irabazten badu, obra guztia ordainduko diote. Berriz, 4.980,72 eta 8.414,17 euroren artean irabazten badu, %30etik %95erainoko laguntzak izango ditu. Eta 8.414,17 euroren eta 16.828,34 euroren artean irabazten badu, obraren kostuaren %5etik %25era ordainduko diote. Landa eta hiri-ondasunen ziurtagiria kontuan hartuko dute.

Bere aldetik, Vital Kutxak maileguak ematen ditu obra ordaintzen laguntzeko. Ohiko maileguak dira, 36 kuotatan itzuli beharrekoak. Hori bai, mailegu horien interesak Mejora Fundazioak ordainduko ditu.

ESKAERAK NON EGIN

Informazio gehiago behar duenak Aramaioko Udaleko gizarte laguntzaileari galde diezaioke (Susana). Edo telefono honetara deitu: 900 81 00 82 (doako telefo-



Besteak beste, komunetan aparailu bereziak ipintzeko diru laguntzak ematen ditu Mejora Fundazioak.

noa da), 09:00etatik 13:30ak arte edo 16:30etik 19:00ak arte.

UDAKO OPORRAK DIRELA-ETA

Bestalde, 2005-2006ko oporretarako programa aurkeztu berri du IMSERSOK. 65 urte edo hortik gorako pentsiodunei edo 60 urte beteta dituzten aurre-erretiratuei zuzendutakoa da. Honako bidaiak

**Oporretarako
eskaerak egiteko
epea maiatzaren
23tik ekainaren 1era
artekoa da**

izango dituzte aukeran: Penintsulara edo Balear Irletara, 8 eta 15 egun, urritik apirilera. Kanariar Irletara, Portugalera edo Turismo eta Natura Zirkuitu Kulturalak, otsailtik ekainera.

Eskaerak egiteko epea da: maiatzaren 23tik ekainaren 1era. Informazio gehiagorako: 901 10 98 99 telefonoa edo udaletxea.

Bestelako zerbitzuak, adinekoendako

Aipatutako bi laguntza motez gainera, bestelakoak ere badira pertsona nagusiendako. Esaterako, Diputazioak pertsona nagusien familiei laguntzeko programa du. Horren barruan, aldi baterako egonaldia eskaintzen ditu pertsona nagusiendako; haien zaintzaileei pertsona nagusiak zelan zaindu erakusten diete; buruko arazoak dituztenei laguntzeko lantegiak eskaintzen dituzte eta bakarrik bizi diren pertsona nagusiekin ikasleak bizi daitezten

bultzatzeko programa ere badute. Horrez gainera, eguneko zentroak ere eskaintzen ditu diputazioak, baita zahartzaroko demenzia dutenendako ere. Eta jakina, hortxe daude, era berean, betiko zaharren egoitzak eta baita beste mota batekoak ere: etxebizitza komunitarioak eta etxebizitza komunitario psikogeriatricoak. Oporretara begira, berriz, bainuetxeetan parte hartzeko programa ere badu, baina izena emateko epea bukatuta dago.

LABUR

Esaera Zaharren Bertso Lehiaketa, gaur iluntzean

Gaur, barikua, Esaera Zaharren Bertso Lehiaketa eta kantu afaria izango dira, Txirritola Euskara Elkartearen eta Aramaioko Bertsozale Elkartearen (ARBE) eskutik.

19:00etan hasiko da ekitaldia, bertso lehiaketarekin. Iaz egin zuten moduan, plazan elkartu eta gero tabernaz taberna ibiliko dira bertsoetan; hain zuzen ere, parte-hartzaileei esaera zaharrak emango dizkiete eta haiek bertsoen bidez asmarazi beharko dute zein esaera zahar den.

Horren ostean, Uribarriko Intxaurren elkartean kantu afaria egiteko gonbidapena egin dute Txirritolak eta ARBEk. Parte hartu nahi duenak herriko tabernetan dituzte salgai afarirako txartelak.

Herriko talde eta elkarteek webgunea egiteko

KZGuneako arduradunak jakinarazi digunez, laster aukera emango diete herriko elkarteek eta kultura-taldeei nork bere webgunea sortzeko. Adierazi digu bera ipiniko dela harremanetan elkarteekin eta besteak beste, webgunea egiteko beharrezko azalpenak emango dizkiela.

Webguneen bitartez, elkartearen ezaugarriak, ekimenak, etorkizuneko asmoak... azaldu daitezke, modu erraz eta eraginkorrean.

Bihar, Papargorrik Gasteizen izango du ekitaldia

Zapatu goizean entsegua dute Papargorrikoek: 12:00etan, kontzertua, Jesus Guridi kontserbatorioan (edozein joan daiteke) eta 14:00etan, bazkaria. 15:00etan, berriz, haurrendako animazioa izango dute, Detraka taldearekin.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San-Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00*	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

LAU TERDIKO TXAPELKETA
Barea elkartaren eskutik eta ETB Kantxa txapelketa-
ren barruan, gaur, barikua,
hiru partidu izango dira.
21:15ean hasita. Urretxuko
Lasak Irurritako Hoberena-
ren kontra; Zarauzko
Argotek, Berako Zubietaren
kontra eta Amezketako Baez
II.ak Irurritako U. Arrastoa-
ren kontra.

BARIKUKO ZINEMA
Christophe Barratier
zuzendariaren *Los Chicos del
Coro* filma emango dute,
22:30ean. Nabarmenezkoa
da filmaren soinu-banda.

DOMEKAKO ZINEMA
Océanos de Fuego emango
dute; basamortua, zaldiak
eta akzioa protagonista dira.

MANEX ARRIOLABENGOA, ONDO
Manex Arriolabengoak ez
zuen saririk irabazi joan den
asteburuan, baina haren
andereño Asun Azurmendik
kontatu digunez, oso ekitaldi
ona egin zuen. Domekako
finalera sailkatu zen,
besteak beste. Manex bera
ere pozik dago egindakoare-
kin eta akaso datorren
urtean berriro aurkeztuko
dela adierazi digu.



Indiako umezurztegiak berbegai, eskolan

Joan den barikuan, gobernuz kanpoko Harreman elkarteko ordezkariak eskolan izan ziren, besteak beste, Indian neska-tilek bizi duten bizimodu latzaren berri ematen. Halaxe erakusten du eskolakoek bidalitako argazkiak. Harremaneko kide Elisa Maiztegi izan zuten berba-lagun. /U.M.

Errekan eraikitako pareta bota egin dute


U.M.

Oraingo astean hasi eta bukatu dituzte erreka barruan eraikitako pareta botatzeko lanak, Pedro Inazio Barrutia kalean. Han inguruan eraiki behar dituzten etxebizitzekin lotuta eraiki zuten pareta, baina auzotarrak ez zeuden konforme.

Errekaren gaineko aldean pasabidea egiteko asmoa zuten Pedro

Inazio Barrutia kalean. Eta horretarako eraiki zuten erreka ondoko pareta. Baina errekararen begira dauden etxebizitzetako zenbait auzotar kexatu egin ziren paretarengatik; besteak beste, adierazi zuten ez zuela erreka errespetatzen, eta aurrera begira errekarako landareak-eta haztea ezinezkoa egingo zuela.

Azkenean, egoera aztertu eta arrazoia eman zieten auzokideei eta pareta bota egin dute.



Eguaztenerako ia bukatuta zituzten pareta botatzeko lanak.

BOTEPRONTOAN/ Eriko Gartzia · UDA futbol-taldeko kapitaina

“Futbolak eman didan gauzarik onena lagunak izan dira, bai hemengoak bai kanpokoak”

Aretxabaletako UDA futbol taldeko kapitaina da orain Adela bi urtetik Eriko Gartzia aramaioarra. Urte askoren ostean (13-14 urte zituenetik), futbola laga egin behar duelako zurrumurrua iritsi zaigu. Hala-koak eta beste galdetu dizkiogu aramaioar gazteari:

Futbola lagatzekotan zarela diote, seguru?

Bai. Gogoia badaukat. Nire asmoa lagatzea da, lanean nabil eta asteburuetan egun bakarra geratzen zait niretzako... Asko da. Ez nuke utziko eskaintza on bat egingo balidate, dirua eskainiz gero pentsatu egingo nuke... baina momentuz utzi egin behar dut. Zortzi urte daramatzat lanean, entrenamenduetan, asteburuetan partiduak jokatzen... Azkenean nekatu egiten zara.

Bien bitartean, UDAko kapitain izaten segitzen duzu eta gainera, pisuzko jokalariki, taldekideen ustez; aurrera egingo du taldeak zu barik?

Taldea berdin-berdin geratuko da. Hamaika lagunek osatzen dute taldea, ez batek. Akaso zertxobait igarriko da, baina hurrengoak hartu beharko du txanda.

Eta orain zer egin behar duzu,



“Zortzi urte lanean, entrenamenduetan, asteburuetan partiduetan... nekatu egiten zara”

futbola guztiz utzi edo talderen bat entrenatzen hasiko zara?

Asmoa da lagatzea; lagunekin partidutxoren bat jokatuko dut, baina bestela utzi egingo dut. Bizikleta hartu eta listo. Momentuz ez dut entrenatzen hasteko asmorik. Bueno, laguntzeko-edo eskatuz gero, pentsatuko nuke, baina momentuz, zero.

Esaterako, Aramaion egoera nahiko eskasa da...

Jorge dabil zerbaitetan, baina zaila da. Gogoia izanez gero, bueno; baina ni moduan bazaude, futbolarekin nekatuta nagoela jakinda... Ez da gogorik izaten.

Eta zein irtenbide ikusten dituzu, zer beharko litzateke?

Udalak bere parte ipini beharko luke, lagundu, diru apur bat eman mugitzen denari, edo zerbait. Pizgarriren bat behar da edo alternatibaren bat

eman, bestela ez da ezer egongo.

Espainiako liga bukatzean, Bartzelonak irabazi egin du edo Madrilek galdu egin du? Eta zu, pozik?

Bartzelonak irabazi, ondo gainera. Ni oso pozik (barreak). **Reala, Athletic eta Osasuna?** Reala, beste barik. Athletic-ek zerbait egin du baina ez zaio ezer ondo irten. Onena Osasuna, Kopara iritsi da, zerbait egin du.

Eta bigarren mailakoak?

Eibar ondo ibili da, baina azkenean... Behintzat jendea mugitu egin du, giroa-eta sortu du. Eta Alaves ondo.

Horrenbeste urte futbolean, anekdotaren bat izango duzu...

Anekdotarik ez, baina esan nezake futbolak eman didan gauzarik onena lagunak izan direla. Futbolaren ikuspuntutik, ez dit ezer eman; futbolean jokatu dut, dibertitu naiz, baina batez ere eman dizkit lagunak, hemengoak eta kanpokoak. **Lopez Rekarterekin ez duzu sekula jokatu?**

Bai, kontrarioa zen, Mondran. **Eta ikusten zen ona zela?** Ez, niretako ez. Baina uste dut 12 urtean egunero-edo entrenatzen bazaituzte eta teknika baduzu, derrigor bihurtu beharko zenukeela futbolari.

“Gazteak gogo barik datoz, jokatzen dute denbora-pasa balitz moduan, ez dute konpromisorik”

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a / 7. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

AISIALDIA/ Aurrerantzean egingo duen eguraldia aprobeztatuta, Gurasoen Elkarteak dagoeneko gertu ditu hainbat irteera

Baltzolatik etorri berri, dagoeneko Mutrikura begira daude GUREL-ekoak

XABIER URTZELAI

Joan den zapatuan izan ziren GUREL elkarteko 18 lagun Baltzolako kobazuloetan, Dimatik gertu (Bizkaia). Hori izan zen udaberrian hasi eta uda partean egingo dituzten irteeretako lehena. Dagoeneko aurreratu digute Mutrikura joango direla ekainaren 4an.

Leintz Gatzagako Guraso Elkarteak Baltzolako kobazuloak aukeratu ditu udaberrian eta udan egingo dituzten irteerak estreinatzeke. Eguna pasatzeko asmoarekin joan ziren Bizkai aldera, baina ekaitza zegoen iragarrita, eta azkenean eguraldi ederra izan bazuten ere, etxera itzuli ziren bazkaltzera.

Itsaso Eginok eman dizkigu xehetasun gehiago: "Bi ordu inguruko ibilaldia egin genuen, baina badaude ibilaldi luzeagoak. Beste talde batekin elkartu ginen han, baina Baltzolako kobazulo horiek ez daude bereziki turistendako prestatuta. Kobazulo ikusgarriak dira. Lehengo koban alde batetik sartu eta bestetik irten ginen. Eta gero, tunel moduko bat dago, eta erreka pasatzen da azpitik. Umeekin joateko leku aproposa da, oso gustura itzuli ginen".



"Paraje ederrak daude Baltzola inguruan, eta kobak ikusgarriak dira; gaztetxoekin joateko leku oso aproposa da".

LEHENENGO BIZKAITARRAK

On Joxe Migel Barandiaranek 1936an egindako aurkikuntzak erakusten du, Baltzolako kobazuloetan bizi izan zirela lehengo bizkaitarrak, hantxe topatu dituzte-eta gizaki aztarna zaharrenak. Ikustekoa da zelan aldatu garen. Ekaitzen beldur, orduko gizakiek lasai-

"Bi ordu inguruko ibilaldia egin genuen, baina badaude ibilaldi luzeagoak ere"

tu ederra hartzen zuten kobazulo horietara iristerakoan. Orain, berriz, horrek ez du babesik ematen. Alde horretatik, kutsu mitologiko handia du Baltzola inguruak. Bizkaian, Mariaren bizileku izateagatik da ezaguna Anboto. Itxinan, Otsabideko lapurra eta lamiak elkartzen ei ziren. Lamindaon

egiten zituzten Petralandako akelarreak, eta jentilen bizilekua zen Baltzola.

HURRENGO IRTEERA GERTU

Bizkaira egin dute lehenengo ibilaldia, eta GURELekoek Bizkairekin mugan dagoen herri gipuzkoarra aukeratu dute hurrengo irteera egiteko: Mutriku. Ekainaren 4ko eta 5eko asteburuan egingo dute txango hori. Dagoeneko hartu dute asteburu osorako aterpetxea, eta zer egingo duten oraindik zehazteke badute ere, Itsasok esan digu, besteak beste, Gaztelugatxe bisitatzeke moduko lekua dela.

ETA MUTRIKUN, ZER?

Mutrikun ez dago aspertzirik. Kanean gora eta behera ibiliz gero, bisitatzeke lekuak dira Galdona jauregia, Montalivet jauregia, edota Txurrukaren etxea. Baina GURELekoak joango diren planean joanda, aproposagoa da esatea, uretako motorretan, piraguetan edota zaldi gainean ibiltzeko aukera paregabea izango dutela. Horren guztiaren gaineko informazioa aurki daiteke www.mutriku.net webgunean. Eta aparteko ezer egin barik ere, hondartzan lasai egotea nahikoa da gaztetxoekin asteburu pasa ederra egiteko.

Gatzagarrek dirua atera ahal izango dute herrian; kutxazaina jarri dute

X.U.

Kutxa erakundeak kutxazain automatikoa jarri du Leintz Gatzagan. Udaletxeko horma batean zuloa eginda jarri dute kutxazaina, eta astean zehar egin dituzte lan horiek.

Astehenean jarri zuten kutxazaina, baina oraindik ez dago erabilgarri, argi indarra, alarma eta telefono sarea jarri barik dudelako. Gainera, kutxazaina ez


dago bere txokoa kokatuta, eta egunotan bota duen euriak kalterik ez eragiteko, estalita izan dute pantaila.

ZERBITZU BAT GEHIAGO

Leintz Gatzagako herritarrek aspaldi eskatu zuten herrian dirua ateratzeko aukera izatea. Izan ere, nahiz eta herri handigoetan horrelako kontuei garrantzirik ez eman, gatzagarrek ondo dakite dirurik izan ez, eta beste herri batera dirua ateratzea joa-

tea zer den. Kontuan hartuta, gainera, Gatzaga non dagoen. Hori esan digu alkateak: "Neuri gertatu izan zait, gainean dirurik ez izan, eta Eskoriatzara jaitsi behar izatea. Bazen ordua Gatzagan kutxazaina izateko".


Herritarrei zerbitzua eskaintzearekin batera, garrantzitsua da kanpotik datozen turistek ere dirua atera ahal izatea. Eta hori ondo baino hobeto eskertuko dute herriko denda, taberna, jatetxe eta ostatuek.



Kutxazaina ondo kokatu artean, euriak kalterik ez eragiteko estalita egon da.

GRUPO **RKUZ**

1950
Zure etxea da
2005




RKUZ ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL

ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



RKUZ

SUKALDE INTEGRALA
Mitarte 3
FAGOR Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

RKUZ

ELEKTRAGAILUAK
expert Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

maiatzean eta ekainean

2x1



12.000
Plaza Bakarrik

8.000 GELDITZEN DIRA!

BIDAIA-LAGUNA DOAN

Konpara ezazu prezioa - konpara ezazu kalitatea

KANARIAK

8 egun / 7 gau

MAIATZA ETA EKAINA

		1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
TENERIFE			
VALLELUZ APTU. 2LL	OB	366€	DOAN
CHIMISAY H. ***	HG	420€	DOAN
PALMERAS PLAYA APTU. 3LL	ME	548€	DOAN
TURQUESA PLAYA G.H. ****	HG	602€	DOAN
PLAYACANARIA H. ****	HG	626€	DOAN
BONANZA PALACE H. ****	ME	722€	DOAN
TENERIFE HEGOALDEA			
TENERIFE GOLF H. ****	ME	536€	DOAN
EST. GREEN PARK 3LL	ME	548€	DOAN
AGUAMARINA GOLF H. ****	HG	578€	DOAN
LANZAROTE			
EST. SOL MORROMAR 3LL	ME	502€	DOAN
RIOSOL APTU. 2LL	GB	660€	DOAN
BEATRIZ COSTA H. ****	ME	666€	DOAN
PARADISE ISLAND H. ***	GB	778€	DOAN
MARINAS CLUB RESORT H. ****	GB	786€	DOAN
GRAN CANARIA			
CONCORDE H. ****	ME	746€	DOAN
MELIÁ TAMARINDOS H. *****	HG	840€	DOAN

MALLORCA

8 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

		1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
SAGA H. **	ME	420€	DOAN	428€	DOAN
SOL MASTINES/CHIHUAHUAS H. ***	ME	476€	DOAN	532€	DOAN
RIU BALI H. ***	ME	562€	DOAN	622€	DOAN
ILLETAS H. ****	ME	632€	DOAN	710€	DOAN
RIU BONANZA PARK H. ****	ME	640€	DOAN	748€	DOAN
RIU PLAYA CALA MILLOR H. ****	ME	686€	DOAN	754€	DOAN
RIU PLAYA PARK H. ***	GB	704€	DOAN	774€	DOAN
DELTA H. ****	ME	744€	DOAN	774€	DOAN
RIU CAMP DE MAR H. ****	ME	806€	DOAN	856€	DOAN

DOMINIKAR E.

9 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

		1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
PUNTA CANA					
OFERTA RIU ****	GB	900€	DOAN	1.038€	DOAN
NATURA PARK H. *****	GB	984€	DOAN	1.134€	DOAN
RIU TAINO H. *****	GB	1.164€	DOAN	1.164€	DOAN
FIESTA BEACH H. *****	GB	1.164€	DOAN	1.164€	DOAN
LA ROMANA					
SANTANA BEACH H. *****	GB	1.174€	DOAN	1.174€	DOAN
PUERTO PLATA					
RIU MAMBO H. *****	GB			1.090€	DOAN

MEXIKO

9 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

		1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
CANCÚN					
RIU CANCÚN H. *****	GB	1.340€	DOAN	1.340€	DOAN
RIVIERA MAYA					
CARACOL VILLAGE H. ****	GB	1.198€	DOAN	1.198€	DOAN
RIU LUPITA H. *****	GB	1.228€	DOAN	1.228€	DOAN
RIU TEQUILA H. *****	GB	1.352€	DOAN	1.352€	DOAN

KUBA

9 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

		1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
LA HABANA					
COPACABANA H. ****	HG	906€	DOAN	906€	DOAN
GRAN CARIBE PLAZA H. ****	HG	942€	DOAN	942€	DOAN
GRAN CARIBE INGLATERRA H. ****	HG	1.022€	DOAN	1.022€	DOAN
TRYP HABANA LIBRE H. ****	HG	1.214€	DOAN	1.214€	DOAN
VARADERO					
RIU LAS MORLAS H. ****	GB	1.180€	DOAN	1.180€	DOAN

2x1

KOSTAK

8 EGUN / 7 GAU

BIDAIA-LAGUNA DOAN

Costa Brava · Costa Daurada · Costa de Azahar
eta Valentzia · Costa Blanca · Costa de Almeria ·
Costa Tropical · Costa del Sol · Costa de la Luz

**IRTEERAK
BILBOTIK**

Irteerak Bilbotik, Kariberakoak izan ezik (hauek Madrildik). Prezioak bi pertsonentzat dira, logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean, Maiatza eta ekaineko Irteera zehatzentzat bakarrik. Erregaien igoera, tasak, bisa eta gestio gastuak ez daude barne. Erregimena: OB: Ostaturak Bakarrik; HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu Erdia; MO: Mantenu Osoa eta GB: Guztia Barne. PLAZA MUGATUAK.

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGITEN DUGU

VIAJES IBERIA

902 108 108

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GENIAGO...

viajesiberia.com

BAL - 001 - M/M